

# zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426666 - PREZIOA 7 PEZETA

## SEGUNDO GALARZA

### NON ZER

- OTEGUN IZAN ZEN GIZONA  
Bujanda ... .. 3 garrean
- GUY HERAUD BAIONAN  
Larresoro ... .. 3 garrean
- BESTE AMORRAZIO MOTA BATEZ  
Ansola ... .. 5 garrean
- IKASTOLA ... .. 6 garrean
- FORUM SAIOAK ETA ZINEA  
Unanue ... .. 7 garrean
- INSTITUZIOA ETA KLERIKALISMOA  
Mujika ... .. 11 garrean

## Gure euskal musika ezagutarazi nahi luke kanpoan Gazteek gure herri musika maitatu bear dute

Seguruan jaioa dugu Segundo Galarza orain dela 48 urte. Ezaguna da euskal musikari bezala etxean eta kanpoan.

Ordizian hasi zen musika ikasten Jose Luis Gurrutxaga Aizarnako semeaz. Gerora Bilbaoko «Conservatorio»an jarraitu zuen ikasi eta ikasi. Etorkizun haundiko pianista bezala nabarmendu zen han. Baina iritxi den lekuraino iritxi bada, saiatuz eta saiatuz, bere buruaren maixu izatera heldu delako iritxi da.

Eduki zituen garai batean bere zalantzak nondik nora jo ez zekiela. Azkenean musika arinari, baina goi-mailako musika arinari ekin zion eta lotu zitzaion. Hortxe ikusi zuen etorkizuna. Baita asmatu ere.

Ibilkari amorratua dugu izaeraz. Lazkaon aurkitu dugu egun batzuk igarotzera etorrita. Beronen oso adiskide den Dionisio Amundarainek lagundurik joan natzaio etxera.

—Noiztik zabilta zure herritik kanpora?

—1948. urtean aldegin nuen Lisboa. Berehalaxe egin nintzen oso ezaguna. Hegoafrikara jo nuen 1951-garrean. Johannesburg-en itun bat egin nuen telebistarako. Latin-musika saioa hartu nuen nere gain. Ingles-musikaz okiturik zeuden han. Lisboa itzuli nintzen berriro 1955-garrean. Eta hamentxe nago geroztik.

—Parterik hartzen al duzu jaialdi eta dantzategietan?

—Ez. Portugalgo telebistan sartua nago erabat. Hor dihardut musika berria sortzen, lehengoak konpontzen eta gazteen artean musikariak ateratzen. 300dik gora dira nik egindako saioak.

—Beste nonbait lan egiten duzu?

—Harreman haundiak ditut Hispavox, Columbia, Belter, Decca, Alvorada eta CBS-ekin. Bi «show» eta 26 «long-play» grabatu ditut hoietan Xabier Cugat eta Edmundo Roslagun ditudalarik. Zazpi pelikulari eta hogeita hamar dokumentali jarri diet musika.

—Bai al duzu musika serioaren zaletasunik?

—Goi mailako musika arinean nago buru-belarri sarturik. Hor dago nere etorkizuna. Baina zerbait ona egiteko asmoz egina dago pelikuletako nere musika. «La leyenda del trovador» da nik sortu dudana musikarik onena. Bestalde ez

dut hitz-emandako gauzetaz kanpo beste ezer asko egiteko betarik.

—Musika maila haundia al du Lisboa?

—Bai. Oso haundia. Orkestra zoragarriak. Munduko konzertorik onenak ematen dira. Hortan lan haundia egiten du «Gulbenkian» elkarteak. Famatua da opera alorrean San Carlos antzokia. Hor entzuten dira opera mota berri guztiak. Ora indikorain eman daGe showmen «Porgy and Bess». Egite guztiak berrik ziren. Ederki eman ditek «Mendociano» Bilbaon gertutzen ari diren geru.

—Nola hizi duzu euskal musika herbesian?

—Ez dut bizi. Horren beharra sumatzen dut munduko azokan. Zoritarrez «Estampas Bilbainas» bakarrik ezagutzen dira euskal musikatzat. Baina badut gure musika zabaltzeko gogoia eta asmoa.

—Nola?

—Donostian aurkitu dut jende kezkatuak. Lagunduz eta zuzenduz gero gauza on asko egin dezakeen jendea aurkitu dut. Ni prest nago hilean behin etortzeko. Itxurazko grabazioak egin behar dira gure musikaz. «Play-back» edo grabaketa orak egiteko aukera eta erraztasuna jarri behar da. Beste inongoen lotsarik gabe eman ditek gure musika nonnahiko telebistan.

—Besterik?



—Gazteek gure herri-musikaz liluratu behar dute. Hortarako gauro gustotara eratu behar da. Ez ditezke herri doinuak alda. Ez dira ukitu behar. Baina armonia eta ritmo berriak jantzi behar dira. Asmakizun berriak aberastu behar dira. Ni behintzat hortan saiatzen naiz.

—Orkestaren zailtasunik?

—Ez. Badut «conjunto» zoragarria euskal musika «long-play» baterako grabatzeko.

—Eta nor hitza abestu?

—Euskaldunek, jakina. Baina ezin dira era berri hauetara moldatu.

Ezin dituzte koruko ohiturak utzi. Donostiako eta Iruñeko orfeoia Lisboan izan dituzten garaipenak ikaragarriak dira. Neu naiz lekuko. Ez dute uste Beethoven eta Mahler-entzat euskal orfeoia baino hobirik ditek. Ez dute uste euskaldunen abotsa baino beteagorik eta gozoagorik ditek ere hortarako. Baina musika arinerako badute euskal abeslariak zer ikasia munduko abeslariengandik.

—oOo—

Pozik jardun gara Segundo Galar-

zarekin hizketan. Entzun dugu musika ederrik ere. Laster atera behar duen diskorekin musika ere entzun arazi digu. Euskal musikaz da. Sorginkeria haundiak egiten ditu gauro aurrerapenei eskēr. Musika tresna guztiak egosten ditu zoragarri batera. Um eon bat erdiko du.

Itxaropentsu eta segurtasunez hitzegiten du Segundo Galarzak etorkizunari buruz. Oso pozik gertatu gara. Aurrera, Segundo. Munduak hobeto ezagu gaitzala zure lanaren bidez.

JOSE MIRANDA



# BATZARRAK

Donostian izan dute aurten bikiek beren batzarra. Bi mila bikote eta gehiago bidu dira. Larros gorri bana zuten ezagarriztat. Gipuzkeatik, Bizkaitik, Arabatik, Nafarroatik eta Logroñetik ez ezik Burgos eta Santanderik ere etorri ziren.

"Agur" eta "Goiz Argi"k ere Loiolako Santutegian egin dute beren batzarra. Bada idazlerik bazterretan!

Ulia mendiko egalean egin zuen bere batzarra ZERUKO ARGIAK.

Bertsolariak ere bazuten beren batzarra. Eibarren bildu ziren Uztapideri omenaldi eginez.

Eskolako umeen dantzari taldeak, terriz, Oñatin egin zuten beren batzarra. Jendea urri antzean iruditut zitzaien.

## ARRIYA ETA URRETA

Azpeitiako zezen plazan jokatu zuten Arriya IIIak eta Urretak. Ombiko zezena enbor ebaki behar zituzten bakoitzak. Arriyaren alde atera zen dirua, nahiz eta Urretak nahi zuen enborretik asteko aukera izan leon-kastillo asmatu zuelako. Berdin samar jardun ziren bosgarren enborra arte. Ederra izan zen benetan bosgarren kortea. Baina seigarretetik aurrera atzeraka asi zen Urreta. Egur gogorak bait ziren eta eskuak ordurako odol-curik.

Ordu bete, amar minutu eta emeretz segundotan bukatu zuen Arriyak bere lana. Artean enbor bat eta zertxobait gehiago falta zitzaizkion Urretari bere lana amaitzeko.

Ona emen bien markak:

	Arriya IIIk	Urretak
1	6,40"	7,35"
2	15,47"	16,03"
3	23,18"	24,30"
4	32,20"	32,52"
5	41,30"	42,47"
6	50,44"	55,45"
7	61,13"	66,58"
8	70,19"	81,70"

Uste zen ainbat jende ez zen izan aizkolariak ikusten. Plaza erdi utsa nabaitzen zen.

Oso egur gogorak aukeratu zituzten. Arriyarenak gogorrenak eta mozteko ere erarik txarrenean jarriak. Izan zen eguraldia ez bazen izan ez dakigu bukatzeko indarririk izango zutenik ere.

## IRUNTXIBERRI ETA ARGINARENA

Ogeita host mila pezeta jokatzaren alde bakoitzetik. Goizean Azpeitian baino are jende gutxiago izan zen arratsaldean korrikalariak ikusten Tolosako plazan. Zazpi kilometro egin behar zituen Iruntxiberririk irurogeita amar buelta zezen plazari emanaz. Arginarenak, berriz, bi gutxiago eman behar zizkion.

Nahiz eta asieran bi segundo galdu aurretik joan zen seigarren kilometroa arte. Baina ez zuen kontrarioari eman zizkion berrehun metroak jaterik izan.

Ona bien markak:


	Iruntxiberrik	Arginarenak
1	3,07"	3,05"
2	6,20"	6,25"
3	9,40"	9,50"
4	13,02"	13,15"
5	16,25"	16,45"
6	19,45"	20,15"
7	23,65" 4/5	23,03" 2/5

## IDI-DEMAK

Larunbat arratsaldean Alfa saria jokatu zen Berrizko probalekuan. Urtainen idiak irabazi zuten lehengo saria. Bigarren Lasarteko Telleriarenak. Irugarrena, berriz, Bermeoko Federnalesen idiak.

Berriatuan, berriz, V Itargi saria jokatu zen. Jendea erruz zen Alde aundia kendu zien Bizkaikoek Gipuzkoakoek. Berriatuko Burgo atera zen nagusi. Bigarren, Laukinzko Menteak anaiak. Irugarren Motrikoko Landa eta Laugarren Lasarteko Telleria geratu ziren.

Mutiozabal





# ECHABE

ETXABEAREN  
Mueble - Etxea

Fuero'en Enparantza

Urrutizkifak: 84 10 78  
84 11 24


ZARAUTZ



**BLAS DE LEZO**  
ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARDO, ARDO GAIN-GAINEKOAK  
ETA EBARI GUZTIETATIK  
Blas de Lezo Kalea. 6  
Urrutizkifak: 41 20 65  
DONOSTIA

**MITXELENA**  
ORDULARI ETA BITXITEGIA  
Dei honi jarraituz bazatoz zure erlojua KANARIAS bertan baiño merkeago erosiko duzu  
Matxin Arzu, 1  
ONDARRABI

**TRANSPORTES azkar**  
ERAMAN - EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK  
Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón.  
Donosti'tik egunero:  
Iruña, Bilbao, Gazteiz, Jerez de la Frontera, Cadiz, Alicante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería, Santander, Valladolid, Zamora, Palencia, Salamanca-ra.  
Astean iru aldiz:  
Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.  
Carretera Gral. a Hernani - B.º Ergobia - DONOSTIA  
Telefonoak: 450313 eta 459723  
Apto. 1381  
Apto. 1381



# MILLOI BAT ETA 100 ESKUKO TELEBISTA ZOZKATZEN DITUGU

Milloi pezeta eta 100 eskuko telebistako zozketa ontan Noiznaiko, Aldi-jakiñeko, Bizitzako ta Erbesteratuen kartillak sartuko dira.

Maiatza'ren 16'tik Uztaila'ren 7 arte jartzen diran milla pezeta bakoitzeko zenbaki bat emango da, ta beste zenbaki bat jarrita dauden 5.000 pezeta

bakoitzeko, milla pezeta sartuékero.

Aldi-jakiñeko kartilla bakoitzaren zenbakiak artzeko, beste milla pezeta sartu bear dira Noiznaiko kartillan. Zozketa, Aurrezki Kutxa Probintzialaren lantokian, J. M. Salaverria kalean, datorren Uztaila'ren 13'an egingo da.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL DE GUIPUZCOA**



# JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK

Hernani, 4

DONOSTIA



**aristegui hermanos**

ZORUAK ETA ESTALKIAK,  
PERSIANAK, ATEAK, ETA ABAR.  
GARBITOKI ETA ITURKINTZA GAIK.

ERAKUSTOKIA:  
FUENTERRABIA, 19 - URRUT. 11459  
DONOSTIA

ERLOJU ETA BITXITEGIA

**Eduardo Chopetia**

Getaria 10-Urrut. 417751-Etrekoa: 422700 - DONOSTIA



# GUY HERAUD BAIONAN

Aspaldianik ezagutzen dugu euskaldunok Guy Héraud irakaslea eta adiskidea. Strasburgo-ko Unibertsitatean urte luzetan ari izana. Biarnoko Pabekoan ari zaigu gaur lanean; eta ez Euskal Herritik urrun, beraz. Betidanik Euskal Herriarekiko izan duen jaihera hura, hurbiltasunean azkartu nahi izan balu bezala.

Eta ederki mintzatu zaigu Baionan joan den Maiatzaren 12an; ezin hobeki, nik uste. Etni-arazoak inork baino segurkiago ezagutzen dituenak («L'Europe des Ethnies» eta «L'Europe des Langues» liburuak lekuko) gai hori ukitu du gure aurrean; eta, bai tankeraz bai oparotasunez, liluraturik utzi ditu entzutzerara joan zaizkion guztiak.

Etni-arazoak Europan barrena behar ez, baina gorantz doazela esan du; alegia, etni-arazoa duten eskualderik gehienetan, jatorrizko etni-nortasuna galtzeko joeraren kontrako pizkundea eta atxiki-nahia agertzen direla eskuarki. Etni-arazoak bizirik daude, hitz batez, Europa guztian. Edo, alderantziz ere esateko: etni-zapalkuntzak eta kultur-inperialismoak bizirik diraute Europan, bai Mendebaldean bai Ekialdean.

Zergatik «etnia» hitza erantsiko nik? Ez ahal da aski «herri» hitza? «Herri zapaldua» eta «oligarkia zapaltzailea» ez direa aski? Galdera horien oihartzuna badantzet bazterretan.

Eta neure erantzuna, Baionan entzundakoa berriro finkatuta, ez dut luzatuko ez disimulatuko: «etnia» hitza erantsi beharra dago; zeren-eta beste herrien NORTASUNA eta HIZKUNTZ-BEREZITASUNA hiltzeko joera, ez baita ekonomi-molde edo giro honi edo hari itsatsirik, ekonomi-molde eta giro GUZTIETATIK AT baizik. Etni-arazorik ez duten herri zapalduak badaude: Portugalen, Arabian, Grezian. Herri-zapaketa guztiak ez dira beti etnikoak. Nahiz, alderantziz, etni-zapalkuntzarak gehienetan etnia zapaldua ekonomiarren eta politikaren mailan ERE zapalduak egon ohi bada ere (ketxwatarrak, maya - kitxetarrak, bretonak, kurdotarrak).

Honi buruzko galdera bat egin zaio, hain zuzen, Guy Héraud irakasleari. Berriaz eta argi bila egin, egin zaion bezalatsu emango dut hemen: «Batzuen ustez, ekonomiak sortu du nazioa. Burgesiak sortutako merkatu-batasunak ekarri omen du nazioaren izana, eta ondorengotik naziotasuna eta abertzaletasuna. Sozialismoaren aldeko burrukan, hortaz, burgesiaren kontra jokatzean eta sozialista iraultza burutzean, etni-zapaketa eta imperialismoa batera iraingiko dira. Etni-zapaketa burgesiaren ekarri zuen; eta burgesia uzkailean, beraz, etni-zapakuntzak oro ere bukatuko dira. Nazio-burruka klase-burrukaren aldia bat baizik ez da. Zer deritzazu zuk, Héraud jauna, teoria honi?». Horreraino, beraz, galdera.

Guy Héraud-en erantzuna ez da batere luzatu: «Teoria hori faltsutzat daukat» esan du. «Burgesi-arrazorik ez dagoen erresumetan ere —erantsi du, anitz argitzapenez funtsatuz— badaude etni-arazoak eta kultur-zapalkuntzak; eta, sustiraian, bestea (beste gisa eta bestelakotasunean) ukatu-nahi berberak mamitzen ditu jokabideak Mendebaldean eta Ekialdean».

Xehetasun anitz eman du, gogo-ago esan duen bezala; eta etni-arazoari buruz dauden jokabide-desberdintasunak aztertu ditu xeheki. Dena hemen osoki azaltzerik ez dago.

Guy Héraud-en iritziz hitz gutxitara biltzekotan, nahiz klasearen eta etniaren OSOTASUNA («globalité» esan du frantsesez) honetan eta hartan antzekoa izan, klaseen eta etniaren arteko desberdintasunak sakonak dira oso, bai gurko egon-erari buruz bai etorkizunari buruz; etahonetxek azal dezake ongienik beharbada politika eta ekonomi-sistematik at ere kultur-inperialismoa eta etni-desberdinekiko herra horiek bizirik egotea.

Beste hitz batez esateko: Héraud irakaslea ez da monista agertu, PLURALISTA baizik. Héraud irakasleak ez du, politika arazo guztien funtsean, problema bakar bat somatzen, kapitalismoarena. Etni-arazoak badu, haren ustez, ekonomi-

-moldaketaren eta burrukaren mailakoa EZ DEN sustrai bat; eta, hortaz, nik berriki Gorka Knörrri eman nion erantzun-mota berbera eman digu Baionan.

Jakina: gaur Hegoaldean dagoen giroa ezagutu, hau esatea eta zenbaiten artean «superado» eta «burgues» agertzea gauza bera da. Badakit, eta ez atzo erreparatua. Baina horrela gerta dadin beldur-erak ez nau neure iritzitik izpi batez ere aldaratuko. Egia eta moda gutxitan baitira elkarrekin joaten, eta nik, gaurkoan Hérauden irakaspeneak gidari, lehenengoa zerbitzatu nahi bainuke.

Guy Héraud jakintsuak etniaren BEREZITASUNA defenditu du; etniaren zertasuna, funtsa eta errotikako autoktonia; eta proposatu zaion sasi-azalpen ximple eta dogmakoiaren faltsukeria salatu du deplauki.

Hots, egia hori, eta beste anitz, azken bi mendeetan temakor, integrista eta fanatiko bihurtu zaigun herri zoritxarreko honetan esan behar da: atsekabe gertatuagatik ere, argi eta garbi mintzatu behar da.

Etni-arazoa eta klase-arazoa BI arazo dira, ez bakar bat; ez bata bestearen «fase» bat, eta ez horrelakorik ezer. Burgesia desjabeturik ere, etni-arazoak egon daitezke; eta etni-arazoa konpondurik ere, klase-arazo gaitzak egon daitezke. Gertaera ezagun eta ezin-ukatzeko hau gogorazi du Héraud jaunak Baionan; eta hori eskolastika zahar edo berriekin nola ezkon ote daitekeen, ez da batere ene afera, eskolastikoena baizik. Hor konpon berak! Gertatzen dena, gertatu egiten da;

eta gertatzen denaren arabera aldatu behar dira sinesteak eta ideiak, eta ez alderantziz gertaerak ideien eta dogmen arabera faltsutu eta izkutatu. Dogmakoiaren joera hori ausartki salatu zuen Sartre aspaldian («La Critique de la Raison Dialectique»).

Modako fededunak sutan jarriko dira lerro hauek irakurtzean. Baina amorrazio horiek ez dira gaurkoak. Pairatuak ditut. Eta agian libratuko da gure herria guruzatu berriogandik! Ezin hobekiago azaltzen zuen dogmakoiaren jokabide hori Bertrand Russell zientzi-gizon bikoainak 1947an; eta neure egingo ditut haren hitz hilezkorrak: «Los sistemas dogmáticos presentan otras dos desventajas, a saber: implicar FALSAS CREENCIAS sobre cuestiones de hecho práctica; mente importantes; y suscitar la VIOLENTA HOSTILIDAD de quienes no comparten EL FANATISMO en cuestión... Bazekien harek, bai, fanatismoa zer den».

Baina guk, euskaldunok, gaitz hori bertagotik ezagutuko ez ote dugun beldur naiz.

Gure kondairaren ohore den Tuterako erlijio-pluralismo eder haren izpiritua, aspaldian suntsitu bide zen gure artean, ondokotz; eta haren orde, fanatismoa dugu nagusi han eta hemen, behin eta berriaz gailen, irakurleak dakien herrian bezalaxe.

Zorionak, beraz, Guy Héraud jaunak, egia jator gogorazi diguzulako. Euskaldun pluralisten izenean, mila esker anitz!

LARRESORO

## OSTEGUN IZAN ZEN GIZONA

Izen motz bizi batek liburu oso batek baiño gehiago balio du askotan jendeari pentsaerazteko. Izen-buru politik aurkitu ohi dira filmetan, bai baitakite zabaltzaileek hortik asten dela diruaren emana.

Ikus esate baterako «Ozetik etorritako gizona» (zer nolako «otza» daiteke? Besterik gabe, zina joateko gogoaz sortzen zaizu), «Desira izeneko tranbe bat» (eta «desira», deseoa duzu barrenen begiz jotzeko), «Zaldi zeritazan gizona» (zer gizon klase ote da?), «Sekulan izan ez zen gizona», eta abar. Izen bitxi horietako zenbait etor ditezke Chesterton-en «Ostegun izan zen gizona» nobela famatutik. Hau zahar-rragoa baita, esandakoen taxukoa eta polita, tentagarria.

Gizona ostegun? Zer nahasketa da hau? Irakurri egin behar, jakingo badugu. Batetik farregurea ematen du izen horrek, erokeria dirudi. Irakurri ahalean, eta areago irakurritakoa, badakigu ez dela txorakeria; Chesterton-ek «zerbait» adierazi nahi digula, garrantzizko «zer» bat, izkutua, sakona, amets antzeko gertaera eta jostaketaren itxurapean.

Pio Barojari asko gustatzen omen zitzaion «Ostegun izan zen gizona». Ez dakit non irakurri dudan hau, baiña bete-betean sinesten dut. Zazpi gizon dira, zazpi. Munduan aurki ditezken trebe, bizkor, maltzur, arrisksuenak. Eta gainera anarkismoaren zuzendaritza nagusia eskuetan dutenak. Bakoitzari aste-ko egun baten izena damaiote. Hau «Astelen» duzu; bestea, «Astearte»; hirugarrena, «Asteazken»... Eta arrigarriena dena. Ustezko anarkista buru horietako batzuk (ala guztiak?) poliziak dira, alajaina. Poliki poliki enteratzen gara «Astearte» (Gogol polakoa alegia) poliziak dela, eta «Ostiral» (Worms irakaslea) ere poliziak dela. Besteak zer ote dira?

—Zuk ba ahal zenekien Gogol guretakoa zenik?

—Nik? Ez alegia —esan zuen, arriturik, Syme-k. Zuk bai ala?

—Eta hiru giñela pentsatzea. Hiru zazpi artean borroka-numero ona da. Hiru polizi giñela jakin izan bagendu...

Gerora ikasten dugu Dr. Bull bera, «Larunbat», politizakoa zela. Nork esan behar? Lau hiruren kontra. Bazen ordea polizi gehiagorik ere. «Asteazken», eta «Astelen».

Filosofia liburua dugu, poliziak nobela hainbat, «Ostegun izan zen gizona». Izan ere, zer da, zein da

«Igande»? Gizon gizen, aurpegi zabal bildurgarria, Buruzagia, gizona ote zen? Syme Scotland Yard-eko bere lanbide berrian artu zuenak ez ahal zuen menturaz «Igande»-ren antza? Esan izan den bezala, nobela honetan ez dago gaizkilerik, ez baitago gaizki-egitiki. Bi ahal, bi indar etsai, baiñan errugabe, txintxo, ia elkar maitatuaz, borrokan ari dira elkarrekin. Politika nobela da «Ostegun izan zen gizona». Bai-tarrak eta ez-tarrak gudukatzen dira zerbaiten billa, garbiri jakiteke zer den billatzen duten hori. «Besteri» nahi dute, «besterik» izkutu, illun bat.

Politika obra bat da Schiller-en «Guillermo Tell» ere, Suizako giroz jantzia. Herri zapaldu batek kateak eten nahi ditu askatasuna lortzeko. Herri borroka da. Herria bera ari da hortan. Baiña borroka artean du gorputz Guillermo Tell-engan, hau herriaren irudia, ispillua, izpiritua egiten delarik. Salbatzen du semea eta salbatzen du herria. Il-zaballearekin elkartu gabe ordea, ez baitu onartzen odol-ixurtzailearen jokoera.

Eugenio d'Ors-ek «Guillermo Tell» izendun drama bat idatzi zuen Schiller-enari erantzun gisa. Ors-en arauak, ez askatzailea ez zapaltzailea ez dira ongi jabetzen beren ekintzaren zentzuaz eta ondorezetaz. Alderantziz, azpikoz gora ipiñi omen zuen Schiller-ena, matxinada garalleetan naguskeriaren alabeharra salatuaz. Oker ez baha, ez baitu bistan, honoko itz hauekin bukatzen da: «Ez dakigu ezer. Sekulan ez dakigu ezer».

Churchill-ek behin esana da herri baten politikaz zerbait jakitea gauza gaitza dela eta herri-arteko politikaz zerbait jakitea berri, litekeenik gaitzena. Eta beste behin, etsaiak ez direla betiko, ez adiskideak ere, gure interesak baka-rrak direla betiko. Izan ere, denborak aldatzen dira, problema berriak sortzen, lehengo griañak itzaltzen. Jendeak ez du erabakitzen gehienetan. Giroak, inguruak, jatorriak, eziketak, bizimoduak eragin gaitza dute giza izpirituan. Gauzen eriatributasuna ikusten da, gizon guzkiekiko behar den neurrigabeko errukia nabarmenduz. Ez diot hau iñor zuritu, gutxiago zurikatu, asmoz, baizik egia bere osotasunean ikusi gogoz. Pentsa, adibidez, Alemanian gertatuaz Hitler-garaian. Jar dedilla norbera haien tokian. Golek pakea bazioten, denak pakezale, gerra bazioten, denak gerra-

# ESPETXEAK

Espetxeek eskaintako aldea dugu «Hechos y Dichos»-en maiatzeko zenbakia. Beste idazlan batzuren artean Antonio Beristaini egindako elkarrizketa dakar bertan. Unibertsidade askotan izan da irakasle: Deuston, Valladoliden, Madrilan, Oviedon. Gaureraino Donostiakoan aurkitzen da. Batzar askotan parte artu du. Europako espetxe asko ikusi du. Bai espetxeratuak eta bai hauen zaintzaileekin asko itzezin du.

Gauza lotsagarri asko ikusi duela esaten digu. Adibidez, 16 urteko mutikoaren egoera lotsagarria: 40 egun gela txiki batean, bakarrik, inorekin itzezin gabe, ezer irakurri gabe, zigarrorik erre gabe, eseritzeko aukerik gabe, berogarririk gabe. Edo beste lotsati harena: egin beharrezko «inkai» guztiak besteren aurrean egin behar izaten zituen. Edo izkuntzarik ez zekien erbesteko langile harena. Edo emaztearekin eta seme-alabekin minutu batzuk besterik ezin itzezin zuen aita harena: astean edo ilean minutu batzuk eta bera bi sarealdiren tartean zaintzailea zutelarik. Eta legezizonarekin itzezin nahi zuenean ere zaintzailearen aurrean egin behar izaten zuen.

Espetxeratuak ez dela pertsona bezala artzen, gauza bezala baizik, dio. Arrigarria dela Elizaren jokabidea ere, aitoritzen du. Hontaz itzaldi eta gotzai-agiri gutxi ezagutzen duela esaten du. Ez dela Eliza Ebanjelioak aipatzen dituen espetxeratuaz behar aintzat mintzatzeko, dio.

Zoritxarrez egia aundia, noski. Arazo asko aipatzen du Elizak, baina hontaz oso gutxitan edo agian behin ere ez zaigu mintzatzeko. «Vida Nueva»k maiatzaren 14ekoan dioenez izan da bai 352k izenpetutako eskutitz bat. Baina ez dirudi Gotzaiak aintzatzat artu dutenik.

Ahaztu bazaigu ere espetxeratu pertsona da. Lehenbai lehen giza eskubid eguztien jabe izan behar duen pertsona. Ahal denik azkarren berriro gizarteantzeratu eta itsatis behar duen pertsona.

Espetxeak zigortegi baino gehiago sendategi izan behar du. Ez litzazkioke espetxeratuari, lanerako, lan-sarirako, segurustarako, oporraldirako eta familiako arremantarako eskubideak kendu behar. Eskubide hoiak aitoritzen dizkien leku gutxi da munduan.

Oso motz aurkitzen dira espetxeratuak leku askotan. Ez dute behar bezalako gelarik, janik, lanik, jolastegirik, arremantik. Ez dira gutxi, bizitzaz naskaturik beren burua iltzen dutenak. Barruan sartzen dituzten ia gazte denak bi urterako aragikeriara eta liksikeriara behartzen dituzte lehenik daudenek. Asko dira burutik nahasten direnak. Asko gaitxotzen direnak.

Benetan lotsagarria da gizarteak espetxeratuak egiten duena. Ez dezakegu honela jarrai. Gizartearentzat arriskugarri diren gizon-emakume hoiertzat zerbaiz egokigarrik sumatu beharrean gaude.

Gizarteak ahal duen denborarik gutxienean askatasunik gabe edukitzeko eginkizuna du. Ahal duen azkarren kaleratzeko eginkizuna. Bitartean pertsona bezala erabiltzeko eginkizuna. Erantzunkizun ikaragarria dugu.

## ZERUKO ARGIA

Zuzenadaria:  
MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1º Burlada-Pamplona).  
Donostian: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

### ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

Irarkola:  
«Gráficas Navasal»  
A. Adoain, 1 IRUIÑEA  
D. L.: NA. 80-1963

## EGUN EGUNEKO

Batasuna da, hain zuzen, euskaldunen gogoan mementu honetan dagoen asmo bakarra.

Batasuna lortu nahi dugu bai, mila aldiz aipaturiko euskaldunen batasuna.

Halabainan, hori esatea ez da aski, hori denok badakigu, jakoa hau da: nola egin.

Hortarako errealismo apur bat behar dugu. Orain ez dago batasunik eta bi egunetan ez dugu benetako batasun bat egingo. Deus baino lehen batasunaren oinarriak behar dira egin, eta gaurkoz lehenbiziko oinarria hau da: euskaldun zein den eta zein ez den berezi.

ren alde. Nor errudun? Nork arria botatzeko gai?

Konpontzeko eta batzeko baiño ixurriago eta emanagoak gara eztabaidarako eta aserretarako. Hauze bai politikak itsua. Elkartzeko ahalme-kan indartzea komeni da, aitzitik. Lagunak ugaltzea. Ona eta zuzentasuna datozten lekutik datozela begi argiz artzea. Euskal bizitegia behar dugu, ez Euskal illerria. Egungo gaitza egun senda dedilla. Bi-har lanik aski izango dugu-ta bi-harkoekin.

Nafarroako Forudun Diputazioa hor dago tente, zorionean, bereari eusteko, euskerari buruz ere. Orain gutxi, euskeraren aldeko erabaki ederra artu du. Osasuna eta erakutsia Nafarroatik datozkigu. Txalo gogor nafar agintariak. Bide hortatik Nafarroak ez du ezer galtzerik. Aberatsagoa eta mardulagoa bihurtzen da. Nafarroa nafarroagoa,


bere jenio eta nortasun eta historiari dagokionez. Bataiotan jaioberriak, eztaietan ezkoberrak eta illetetan ilberriak izan nahi duten horietakoak ez gaituzu. Ospea ongileari beti, eta bihotz barrenbarrendik sende delarik.

Anitz aldiz bizia billakatzen da asma-lan guztiak baiño arrigarri eta oparagoa. Filmek bezala, ustegabe gertakariak dakartzkigu. Amiltegi latzak paradisuak. Larrosa ezak basamortuan.

Zein da egiazki anarkista eta zein poliziak? Non da askatzailea eta non zapaltzailea? Askotan ez dakigu ezer. Buruz eta zuhurtasunez, ernai eta eskuzabal ibilli behar. Baldin honela bagabiltza Euskal-herria gerta daiteke «Ozetik etorri zen herria» eta «Igande izango den herria» ere.

I. BUJANDA





**BERRIAK ETA ZAHARRAK**

Donapaleun sortua da kanta talde berri bat. "Nekez ari" deritza talde berri honi eta hamairu lagunek osatzen du. Lehen aurkezpena maiatzaren 31an. egiteko zen, Asentzio egunez, Garat izeneko trinketean. Jarrai aitzina!

● Nafarroan sortua da "Euskal Dantzari Biltzarren" batzorde bat, Nafarroako dantza talde guztiak elkartu asmoz, eta ondorioz, Nafarroako taldeak ere Euskal Herriko Dantzari Biltzarren barruan sar daitezzen.

Hogeita hamabosten bat dantza talde omen dago Nafarroan, eta dagoeneko hemeretzi onartu du elkarte berri hori. Iruñeko sei eta honako herri hautako hamairuk, hots, Arizkun, Puente la Reina, Tafalla, Lizarran, Cinturónigo, Altsasua, Etxarri-Aranatz, Urdiain, Aoz, Cortes, Uitzama, Bera eta Ituren herriek.

● Atzeratua izan da maiatzean eratzeko zen Olaeta Taldearen dantzaldia. Oraindik egunik aipatu ez den arren, udazkenean eratu omen dira Segundo Olaeta zenaren omenezko saiok.

● Ekainaren 28an. eratu omen da Portugaleten bertako "Gaurko Gazteak" deritzan elkarteak antolatu duen Euskal Kanta Berri Lehiaketa. Izena emateko epea bukatua da maiatzaren 15ean eta guztira hogeita hamasei kantari dira lehiaket ahonetan parte hartuko dutenak.

● Uztailaren 29an. eratu omen da berriz II Olaztiar Kanta Lehiaketa. Edozein kantarik parte har dezake, hasi nahiz guztiz ezaguna izan, euskaraz zein beste edozein hizkuntzatan kantatuz. Izenak emateko azken epea ekainaren 9an. amaituko da.

● Errenteria namaitu zen zenbait egunen buruan eratu den Musikaste delakoa. Benetan interesgarri izan omen da, eta merezia zuen nonbait, egunkariak eta TVE delakoak eman dioten aipamen eta gorlpen ugaria.

Gu, noski, gaizto samarrak gara eta, Errenteriako Musikaste hori gutietsi gabe, ez eta gutiagorik ere, zera dator-kigu burura: Hizkuntzaren beharrik ez duten euskal arlo eta ageripideei zergatik egiten ote diote horrenbeste zuzikeria?

● Andu Lertxundi (Haur heziketaz) eta Mikel Urkolari (Haur psikologiak) debekatu egin dizkiete Eibarren emateko ziren hitzaldiak. Gipuzkoako "Urrezko Luma" eta Magisterio delako maisu izatez ez bide da nahiko garrantzia hontaz eta hartaz hitzegiteko. Behar bada egia da erdal eserak dioena: Tximinioa zeta zjantzi arren...

● Baionako "Euskal Kulturaren Alde" erakundeak jakinarazi digunez, aurtengo AGIRRE SARIA oraxeren "Jainkoaren billa" liburuari eman zaió. Harrez gainera ohorezko aipamena egitea ere erabaki omen dute, Jaime Kerexetaren "Alkartasun Barria" liburuz.

**UDAKO EUSKAL IKASTAROK**

Bizkaiko Elizbarrutiko Irakaskintza Batzordearen laguntzapean, eta "R. M. Azkue" Seminario-Ikastetxe euskara irakasleek eraturik, prestatuak dira dagoeneko uztailaren 2tik. 14era. Derion izanen diren IV Udako Euskal Ikastarok.

Honako ikastaro hauek hiru mailatan izanen dira, hone-latsu: A) Lehen mailan: Morfologia eta Joskera. Aditza. Literatura, testu azterketa. B) Bigarren mailan: Morfologia eta Joskera. Aditza. Literatura, testu azterketa. D) Hirugarren mailan: Morfologia eta Joskera. Aditza, konparatua eta baturantzeko jokabideak. Gaurko Literatura.

Ikastaro hauei dagokien programan hitzez hitz irakur dezakegunez: Euskara dakienak eta euskarazko lanik argitaratu ez dabena bakarrik onartuko ditugu. Irugarren mailako ikastarora ondo amaitu dagienei Diploma bat emon-go jake.

Ikastaro oneitako irakaste jokabideak onelan eskatzen deuskuen azkeron, orain arte ikastaroren bat emen egin daben ikasleak eta euskara irakasten diarduenak onartuko ditugu, batez bere. Ikastaro oneitakoren bat egin nai dozenok, Seminario-Ikastetxera bialdu egizuez zuen izen-abizenak eta zuzenbidea. Ekainaren 15a. baino leen bialdu bear dituzue.

Matrikula: 1500 peseta izango da artuko dituzuen eskola-ta material guztiakaitik ordaindu berako dozuena. Bizkaiko Elizbarrutiko Irakaskintza Batzordeak beka batzuk sortu ditu diru arloan urri aurkitu daitezzen ikasleentzat.

Pentsinoak: Ikastaroak internaduan edo erdi-internaduan egin daitezke. Internaduan, eguneroko pentsinoak 160 peseta izango da. Erdi-internaduan, bazkaria 75 peseta.

Oarra: Ikastaroetara lenengoz datozen ikasleak azterketa bat egin bear izango dabe aurretiaz.

**ZORIONEKO BILINGUISMOA**

Yon Echarri kazetaria hasi zaigu Donostiako LA VOZ DE ESPAÑA egunkarian "La Semana Guipuzcoana" deritzan sail bat osatzen. Bertan ematen digu Gipuzkoan barrera asteren buruan eratu diren gertakizunak. Behar bada beti ez du gure ustetan

asmatzen, bania hori "familia onetan" gertatzen den gauza da, eta txarrean ere, ez diogu oraingoz "borondate" onik ukatuko.

Aurreko aipamen batetan, berriz, haur-ketekesia bi hizkuntzatan egin behar genukeela proposatu zigun. Herriak elkartu beharra bait du Jainkoarengan eta elkarrekin errezatu.

Orain modatan dago, nonbait, zorieko bilinguismo hori, eta neri, egia esan sasi-bilinguismo zale hoiak barre-gura ematen didate, barre egin hobe bait da negarrari ekin baino. Izan ere, euskal kulturak deraman hildoon aspaldi gaingitu genituen iritzi ustelak, egundainoko asmakizun bitxi bezala eskaintzen datozkigu.

Lehen ere ezagutzen ditugu esperientzia hoik, oraindik ez dela asko zenbaitek eraturiko bi-hizkuntzako jendaurreko elkarrizketak lekuko. Bi-hizkuntzako elkarrizketa... bego. Baina, zer hizkuntzatan? Berdintsu orain, antza, zorieko bi-hizkuntzako haur-ketekesia horrekin.

Euskara ez omen da beharrezko euskal kulturagintzan... Herria, egun, nahiz eta "zoritzarrez", bi-hizkuntzako omen da, gainera, eta guztiel erantzun behar omen zaie. Daite-keena noski, guztiel erantzun behar hori, baina ene apaltasunean hauxe esan nahi nuke: Ez dela egia Herria bi hizkuntzako denik. Ez, eta mila bider ez! Euskal Herriko bilinguismoa besterik da, hots, jende multzo batek bi hizkuntza dakizki, eta beste batek bat bakarrik. Ez dakizkigula orain azken hoik afankerietan etor! Lehenik ikas dezatela bigarrena eta gero... gerokoak. Artean, utz baketan!

**EUSKAL IZENDEGIA**

Berriz ere Jose Mari Satrustegi euskaltzain jaunarekin hitzegiteko aukera izan dugu telefonoz. Urdiango "Aitziber" dantza taldea eta "Euskal Izendegiaz" Eibarren eman behar zuten hitzaldia zirela eta, mizpahiru alditan ihardun dugu elkarrekin.

Honelaxe jakin izan dugu Euskaltzaindiko batzorde bat Madrileko "Dirección General de Registros" delakoan egon berri dela, Euskaltzaindiaren aginduz Satrustegik berak moldatu zuen "Euskal Izendegia" deritzan izen bilduma aurkeztuz.

Maiatzaren 16an. Errejistroak Zuzendari Nagusi den Escriba jaunarekin pertsonalki hitzegiteko aukera izan zuten. Escriba jaunak arretaz hartu omen zuen euskal izenei dagokien arazo hau, eta aitortu ere aitortu zuen, katalunyar izendegiaz zertxobait dakiten artean, euskal izendegiaz ez dakitela tutik ere, eta askotan, erabat galdueak aurkitzen omen dira euskal izenen erabakitzean. Honetaz, Escriba jaunak biziki eskertu zuen Euskaltzaindiaren izenez harako batzordeak eskaini zion laguntza.

Geroztik jakin dugu arlo honetaz beste bi berri. Bat, Juan Bautista Merino euskaltzain laguntzaileak, Jose Luis Lizundia idazkari ordezkoak eta Jose Mari Satrustegik berak osatzen zutela aipatu dugun Euskaltzaindiaren ordezko batzorde hori.

Bi, "La Vasconia" Banketxeak Durangoko Liburu Azokan azaldu zituen 50.000 aleetatik, 43.000 zabalduak direla dagoeneko. Zazpi hilabateren buruan egundainoko harrera izan du, beraz, Euskal Izendegi berriak.

**BERANDUTXO BAINA.**

Aspaldiko arazo batez dator-kigu orain Nafarroako irakurle bat. Irakurle, diogu, nahiz eta behar bada izan ez, otsaillean aipatu genuen berri bat zuzendu nahiz bait dator-kigu maiatzean. Hala ere, hona hemen haren gutuna, hitzez hitz, behar den legez, laburregi ez bada ere:

Amatiño jaunari: DIARIO DE NAVARRA egunkariak (1973-25-I, 10.garren orrialdean) eta PRINCIPE DE VIANA euskal aldizkariak (1973ko. Otsaillean), Eratsungo gurasoei "Premin Ixurk" egindako karta irikia argitaratu zuten.

Nere erritar eta euskarazale bikañak olaxe zion: "Horko maisu jaunak, familia bakoitzari, karta bat egin OMEN-dizue, aurrei etxetan euskaraz ez egiteko eskatuaz..." eta bukaeran olaxe zion: "Mintza bedi zabal-luze afera honetaz, Oreja Maisu Jauna. Bere zeregina duenez gero".

Nundik et anola ez dakit, "Amatiño" jaunak ZERUKO ARGIAN (1973-Otsaila, 4 4.garren orrialdean), ni Eratsungo maisua naizela uste izan du eta ari bota bearrak neri botatzen dizkit.

Goragarria da bere arreta eta bere uste onaren kezkarik ez da, baiño oraingo malluak ez du bere iltzean jo. Ni ere maisua naiz Errazkiñan jaiola, eta Uitzin bizi naz. Naparroako Diputazioak aukeratuta, euskeran aldeko lanetan leporaño sartua naiz. Ortara "Premin Ixurka" jotzen du: "Mintza bedi Oreja Maisu jauna. ere zeregina duenez gero" esatean.

Gaurezkeroz, "Amatiño" jaunak eta bere irakurleak sumatuko zuten ez naizela Eratsungo maisua, nere "Uskara" eta euskal sena ez ditudala galdueak eta gai ontan oso ta besctebat da nere jokoera.

Biotzetik. Ioseba Mikel Oreja. Uitzin, 1973ko. Orrillaren 11an.

Beraz, gutun honetatik honako hiru puntuok atera ditzakegu aski garbi: 1-Guk aipatu bezala, Eratsungo maisuak karta bat egin OMEN ziela gurasoei etxean euskaraz ez zezaten hitzegin. 2.—Karta lotsagarri horren salatzaile Premin Ixurko izan zela. 3.—Preminek Oreja Maisuari arazo hartaz mitzo zedila eskatu ziola.

Eta, ondorioz, gure okerra honetan datza, hau da, Premin Ixurk Oreja jaunaren izena aipatzen zuela, bai eta kontuak eskatu ere, baina ez Eratsungo maisua zenez gero (bekataria, alegia), Diputazioko arduradun bezala baizik (epallaria). Ez da, ez, berdin, ez eta asko ere, "Amatiño" kaska joari gerta dakion.

Eta, polizi-nobeletan bezala, honako kezka honekin gertatzen gara... nor aráio da orduan Eratsungo maisua? Idatziz zuen ala ez harako gutuna? Mintza bedi, zabal-luze, afera honetaz, Oreja jauna.

**ATZERATUAK DIRELA ETA**

Maiatzean ospatu dugun Atzeratuen Eguna. Egunkari, kazeta eta aldizkari guz-tiek arras aipatu dute gure atzeratu eta mokoloen arazoa, eta ezin inolaz ere uka aipamen hauen garrantzi eta ondorioirik, jende orok jakin bait dezake horrela urteren barruan "izkuturik" dauden gizagaixo hoiak berri.

Atzeratuek badute, noski, berei propio dagokien tratamendua, eta ohizko tratamendu orokor horren barruan euskal sendietako atzeratuek badute —lehandanik besterik ez-balute erekontuta nartu beharrezko beste berezitasun bat,

hau da, hizkuntza, familia mintzo den euskara, alegia. Honetaz, lehen ere nahiko zailtasun aurkitzen dutela gizajook beren inguruan eta, zientzia gizon bat baino gehiago euskararen etsai azaldu izan da, gurasoei etxen erdaraz hitzegin dezaten eskatuz.

Nik neuk ez dakit arlo honetaz ezer guti baino, baina, hala ere, ezagutzen dudan kasu bat azaldu nahi nuke. Izan ere, atzeratu hoitako bat haur bat baino ez zela, medikua-gana eraman zuten guhasoek, eta beste zenbait aholkuren artean hauxe esan zien sendagile jakitunak: "Hobe duzue haurrari hizkuntza batez baino ez hitzegin, errazago izan dakion". Eta hau ez zitzaigun atzo goizean gertatu, orain hogeitaka urte baino. Ez dugu ba, arlo honetan behinik behin, aurrerapen handirik izan, ez halazanko!

Bizi bada, umetan ikusi zuen mokoloa andrea eginik erakutsiko nioke mediku argitsu hari. Hogeita hamar urte hurbil ditu eta ez ditu oraindik gurasoak ezagutzen. Jateko sartu eta ater aegin behar zaio, mundu ezjakin baten bizi da, ez du hitzik ere esaten, ez eta ulertzen, aberetxo errukarriena eta ahulena baino ezertxoago bailitzan. Eta ez, euskarak kalte egin diolako, ez horixe, zientziaren esanari jarraituz ez bait du sekula euskararik entzun, bere hiru anai-arrebek ez bezalaxe. Honelakoren bat entzun behar izanen genuke agian, gaur egun familia hori euskaraz mintzatuko balitz.

Mokoloen arazo honetaz sendagileek zuhurki mintzatu behar lukete. Ez da, zoritzarrez, mokoloa gizajo batzuen arazoa bakarrik, beren sende eta inguruko guztiena baizik. Mokoloen artean ere mailak dirateke, eta euskaldunak baino lehenago gizonak gara, baina ez dezagun euskaldun-tsunik sal ezertxoren trukez. Ez dakigula zenbait urteren buruan goraxeago aipatutakorik gerta. Kontutan izan euskaldunok ez gara horren aberatsak, aitzitik, nahiko mokolo eta atzeratuak gara gu ere gizarte espabilatu honetan.

**URKIXOREN OMENEZ**

Donostiatik jaso dugu Anuario del Seminario de Filologia Vasca "Julio de Urquijo" deritzan aldizkariaren V alea, 1971 urtekoa alegia. Aldizkari honek ohiturik gauzka urte batetako atzerapeneta, baina oraingoan, antza, apurtxo bat beranduxeago azaldu zaigu.

Ale hau Julio de Urkixo zenaren omenetan moldatua da, haren jaiotzaren ehun urtebetetzean (1872-1972). Asmo honetan, A. ovar (Urkixo eta hizkuntzalaritza), L. Villasantte (Urkixo eta Euskararen Batasuna), Lu Mitxelena (Urkixo eta RIEV) eta M. Lekuona (Urkixoren omenez Euskaltzainburu zelarik irakurri zuen agurra) jaunen idazlanek osatzen dute lehen parteak.

Bigarrena, berriz, A. Tovar, N. Ormaetxea "Orixe", M. Agud eta P. Irizar jaunak azterketek osatzen dute. Azkenik, P. Urkizuk 1620an. lehen aldiz argitara eman zen "Tresora hirur lengua-yetakua Frantzeza, Española eta Heskulara" izeneko liburua eskaintzen digu. Liburuxka hau, XVII mendeko erlijio gairik erabiltzen ez duen bakarrenetakoa izateaz gainera, guztiz interesgarri da, sasoi hartako salerosketa eta merkatuko harremanen berri ematen digulako.

Hitzaurrea Manuel Agud jaunak egin da, eta batzaz beste, Urkixoren izpirituari jarrai dizaiogula proposatuz, Gipuzkoarako Unibertsitatea ahalik eta azkarren lortuz, Julio Urkixoren lana jarraituko due ngizona izendatuz (pertsonea hori ba omen da, eta izenik aipatzen ez duen arren berehala antz eman diogu nori buruz ari den) eta "Anuario" aldizkaria honi denbora batetan RIEV delakoak izan zuten hildoon jarraiaraziz.

**TOLOSAN AZKEN HITZA**

Joan zen astean eman zuten Tolosa Sariaren berri. Mahaiburukoen iritzia ere hitzez hitz azaldu genuen, aurtengoz saria eman gabe uzten zela, alegia, aurrez jarraitako baldintzak bete ez zirelako batipat.

Emeterio Zaldibia, Joseba Intxausti eta Andu Lertxundi mahaiburukoak erregu bat egiten zieten antolatzaileei, hau da, ahalik eta azkarren berriz ere II Tolosa Saria azal zezatela, ikastoletako liburuen eza eta premia larria nolabait betetzen joan gaitezten.

Horrez gainera, mahaiburukoen erregua diru-sariari dagokio ere, lehen eta bigarren sariketako ordainak bat egin ditzatela propio eskatu bait dute.

Dakigunez, antolatzaileek biziki onartu dute mahaiburukoek proposamendua, eta oso oker ez bagaude laster eman ahal izanen dugu II Tolosa Ikas-liburu Sariaren berri. Bedi Euskal Herri eta euskaldunen onetan.

● Tolosako Hamabostaldiko azokari buruz esan genituenek izan dute ondorioirik. Esan ere esan bait genuen ETOR, KULISKA SORTA eta EUSKALTZANDIA argitaldaria ez zirela azokan azaldu, nahiz eta eratzaileren deia aurrez jaso izan.

Honetaz, Jose Luis Lizundia adiskideak —Euskaltzaindiko idazkari-ordezko denez gero— telefonoz hots egin digu, honako puntu hauek argitu asmoz: 1—Euskaltzaindiki Bilbaotik bidali zituela bere liburua, Donostiako Blasco izeneko transportista batez 2—Blasconeko arduradunek hitza eman zutela larunbatean Tolosan utziko zituela. 3—Larunbatean eraman beharrean, astelehenean eraman zituela, alferrik alegia.

Enrike Ayerbekin hitzegiteko aukera ere izan dugu, elkarrekin egin behar izan bait dugu Eibarko Liburu Azokako libururen aukera. ETOReko zuzendariak esan didanez erabat lanpeturik ari zirela, Tolosako antolatzaileek jarritako epea amaitu omen zitzaizen, eta geroztik, birritan Tolosara joan izan arren, ez zuten antolatzaileekin egoteko betatik izan.

● Igandean zortzi, hilaren 10ean alegia, urteroko haur idaz lehiaketa eratu omen da Arraten Peli Aldazabal zenaren oroitzapenetan.

Aurteng oidaz lehiaketa hau, eratzen den hamaikagarrena dugu, Eibarko Udaletxea eta "Euskera Lagunak" elkartea antolatzaile direlarik eta Andoni Idoigara jaunaren zuzendaritzapean.

Ohi denez, idaz lehiaketa honetan 14 urte arteko edozei haur edo gaztetxok parte har dezake.

Aurrez izenik eman beharrik ere ez dago. Nahiko da Arraten aialtzea goizeko hamaikak aurretik.

Sariak, bet ibezala, oso onak: Bizikletak, haize eskopetak, liburuak, idaz-tresnak, bai eta txapela, kopa eta diru sariak onentxoentzat.

Diogun, azkenik, meza sandua goizeko hamarretan izanen dela eta ondoren "Kezka" dantza taldearen ekinaldia.

AMATIÑO



# ITALIAN FAZISMOA Beste amorrazio mota batez TINKO

Gaizki dabilta neofazistak Italian. Italiako parlamentuak auzitara eramandu Almirante fazista berrien buruzagia. Oso Diputadu gutxi izan da Almiranteren aurka altxa ez dena, 60 bakarrik, eta asko berriz aurka altxa direnak: 484 diputadu.

Italian alderdi fazista bat sortzea eta zabaltzea debakaturik dago. Orixe erasten diote Almiranteri, fazista mugimendu edo partidu bat sortu duela nahiz eta itxurak besterik izan. Izan ere, Almiranteren alderdia ez da fazista deitzen, Italiako Sozial Mugimendua eta Eskui Aberrikoa baizik.

Baina itxurak egitea gauza bat da eta oso besterik realitatea. Alaz ere ihes biderik badu Almirante diputaduak. Izan ere Italian izan diren ekinza bortitzak ez ditu behin ere bere taldekoek egin dituztenik aitortu.

Alabaina, ez dut uste beste munduko gauzarik izango denik, ekinza bortitz orien egileen eta Almirante mugimenduen artean loturak bilatzea. Ori, ordea, epailarien eskuetan dago.

Araza au kristau demokratentzat arriskugarria da. Italiako Sozial Mugimendua desegitea erabakitzen bada, nroa joko dute mugimendu oni autarkia eman zieten bi miloi pertsonak? Auteskundetan zaila izango zaio kristau demokrata partiduari autarki oriek bereganatzea. Izan ere nola eman autarkia mugimendua desegin erazi duen kristau demokrata alderdiari? Ori ezinezko gauza da.

Mugimendu ori desegin eta, beste mugimendua sortuko da zalan-tzarik gabe. Eta beste mugimendu ori ez litzake biguinagoa izango. Bortizkoria gogortuko litzake.

Fazismoari aurka egitea ondo da. Fazismoari aurka egiteko elkar-tzea ona da baina ez da aski. Aurka egiteko ez da aski parlamentuan elkartzea eta iritzia aurka ematea. Orrelako mugimendu bat ez da bati gogoia eman diola eta sortzen. Orrelako mugimendua batek realistatean ditu bere sustrariak. Egoeraren fruitu da beste gauza asko bezala orrelako fazista mugimendua.

Talde ori desegiteko egoera aldatu behar da, eta ori da, ain zuzen, Italiako kristau demokrata alderdia egin ezin duena. Sozial mailan politikaz auzarta bat egin beharrex txepekierietan erori da. Ekonomia sail-lean ere azkunde sendo bat ezin du lortu. Aldaketa sakon ez izan arren kristau demokratek ezin dituzte erdi mailako aldaketak ere egin erazi.

Orregatik, Italian, fazista mugimenduen orrenbeste problema sortzea ez da arritzekoa.

## PETROLEO ARAZOA

### SHA ENPERADOREA IRAULTZAILE?

Itxuraz berri pozgarri da. Estatu bat bere luraren eta lurreko aberastasunen jabe egiten ikusteak badu alderdi on eta pozgarriak. Irango Estatuak, inguru autan aibat aipatzen den Sha enperadorea buruzagi duen estatuak, petroleoa bereganatu du. Orain arte, erbesteko elkar-teen eskuetan zegoen Irango petroleoa. Aurrerantzean Irango Estatuaren eskuetan geldituko da.

Gauzak orrela adieraziz iraultzaile ekinza bat egin duela dirudi. Zenbait estadutako buruzagiek inperialisten aurka dihardutela adierazteko petroleoa nazionalizatuko dutela agindu dute. Esaten dutanaren lekuko Lybiako Khadafi lehendakaria daukagu. Eta orrelako gauzaren bat entzuten denean, izparrengiek ots eta zarata ateratzen dute. Baina, oraino onetan, arritzekoa da benetan, ez dute ezer askorik esan.

Zer gertatzen daga? Iranek bereganatuaren petroleoa elkarte inperialistek ez dutela ondamendi andirik edo ikaragarriak izan. Lehenik Iranek bereganatze ori ordaindu egin beharko du. Bigarreniki eta au da garrantzikoenetakoa, ogei bat urtetan petroleo elkarteak nahiko petroleo izango du. Elkarteak eskubide osoa du behar duen petroleoa eskatzeko eta Iranek emateko obligazioa berriz. Petroleoaren sal neurria ere berezia izango da elkartearentzat.

Beraz, petroleo elkarteak ez da ain gaizki gelditu. Nahi duenean petroleoa izango du eta zainera merke erosiko du. Egia esan, ez du lehengo irabazirik izango, baina ogei bat urtetan lehengo baina tikiagoa izan arren irabazi segurua izango du. Izan ere, gaur egun petroleo elkarte inperialistek duten beldurrik andiena petroleo gabe gelditzea da. Zihurtasunik ez dute petroleorik izango duten ala batere gabe geldituko diren. Iranen lehen petroleoaren jabe zen elkarteak petroleoa aldi luzean izango du.

Orixe da nere iritziz jokatzeko jakitea. Dena nahi izaten duenak askotan ezer gabe gelditzen da. Askoz obe erdiarekin gelditzea, erdi ori eskuetan izanik. Orixe egin du elkarte orrek.

Beraz Shak egin duena ez da iraultzaile? Ez eta gutiagorik ere. Inperialista interesei ez die egurrik eman. Petroleoa bereganatu du baina baldintza asko beteaz. Bereganatze ori, benetan erdipurdikoa da. Ezin zitekeen bestela izan, Sha enperadoreak ekinza iraultzaile bat egitea miraria litzake. Gaurko egiturei irau erazi behar die agintaritzan jarraitu nahi badu behintzat. Inperialisten aurka gogor altxaz gero bereak egingo luke.

J. E.

"E xabrupto" hasi behar nuke artikulu hau.

Ez, ordea, arraiokeriarik beste inoren kontra esateko. Geure buruaren kontra, euskaldungoaren alde zerbait edo anitz egin nahi gendukeen kontra. Denbora gutxiaren barruan, ezagutzen ditudan gizon gazte argienekin eta sutsuekin mintzatu naiz. Euskaldungoaren egoer acta herrigintzaren moxtasuna izan dugu mintzagai. Eta nere hasierako "ex abrupto" horren sorrera hemendik dator: lagunarteko hizketa argi, garbi eta ieialeian zera, eguzkiaren su argitsua eguerdian ateratzen den bai-za argi eta garbiago, agertzen dela gure arrazoiaren eta kontzientziaren aurrean. Zera, hau baino ez da: euskal-herrigintza egin nahi dugun oro, gaurregun, nora goazen ez dakigula gabiltzala.

Hara, "herrigintza" hitzez, irakurtzaileak asmatzen du, noski, herriaren dinamika osoa adierazi nahi dudala. Eta "herriaren dinamika osoaz" zer esan nahi dudana, igertzen eta asmatzen ez dakienak, aurrera irakurtzen jarrai ez badeza, ez du erze galduko, irabazteko ere lain ez delako.

Badakit aste honetan Bilbon, nere aspaldiko Unibertsitate komertzialean, ospatu den simposioaz idatzi behar dudala. Nola ez, non eta Bilbon, "Eskualdeen Politikaz" deritzaian bi eguneko hitzaldi eta elkar-hizketa mardulak ospatu bait dira.

Gertaera honetxeak, hain zuzen, piztu du nere amorrazioa. (Ez nuke nahi nere amorrazio hau, Joxe Azurmendi haundiaren "amorrazio" kategorian sar dadin. Inoren kontra ez bait doa nere hasierara. Geu gaude geure buruaz haserreturik, amorraturik eta, ez nuke esango, akiturik).

Nere amorrazioa ez doa Deustun mintzatu diren Lasuen, Estape, Fraga, Areilza eta beste hizlarien kontra. Badakit, zerbait ona, edo

nahi baduzu hobexegoa, esan nahi duela, berez eta objetiboki hartuz, 1973go maiatzean zentralismoaren kritika egitea eta erregionalismoaren etorkizuna altxatzea eta aldezte. Badakit hori guziaz, berez eta objetiboki hartuz (berriz esan beharra bait dago) euskaldungoaren mugimendu luze, makar eta erdi-itsuren alde doala. "Europaren ideak gainturik baztertu du Estatu-nazionalaren mito zaharkitua", Areilzaren ahotik entzunik, norbaitek esan zezakean Z-Argiako, ez oraino, baizik aspaldiko artikulu askotatik ikasi duela gure arteko idea errotu hori.

Halaz ere, hontara nator: gaurregun, une historiko honetan, eta historiaren tenore partikular honetan, bere garrantzia du eta garrantzi handia, zalantzarik gabe, erregionalismoaren ideiak eta mugimenduak Europako eta Espainiako herri guzientzat. Guretzat beraz. Guk euskaldunok, euskaldungoaren alde, inork egitekotan, guk zerbait egingo dugula uste dugun guziki, idea anitz dugu erregionalismoaz eta Euskal Herriaz, Guropaz eta Federalismoaz. Baina, ziur nago mundu honetan ez gaitula inork aintzakotzat hartzen. Arega, gero eta gutiago hartuko gaituzte aintzakotzat goazen bidetik, eta inora ez garamatzen bidetik goazen, bizkitartean.

Esan zaidazu, adiskide, ze herrigintza demontre den gurea, geure "kultura" alortxoan burua makurturik xarraka ari geran bitartean. Mundu honetan den gauzarik tristeena engañaturik bizitzea da, nerretzat. Uste ustel baten anparuan kontzientzia trankil batez lo egitea. Gauza alienagarriagorik ez da. Usteak nolakoak, gero? Gure herri hau ez dugu bada, guk munduan berari dagokion mailan, estatuan eta aurrerabidean, ezarriko? Benetan barregarri ote garan beldur ikaragarriak inguratzen nau, aldi honetan...

Gure euskaldungoa folklorea egitea baldin bada, izan dadila gure estrategia kulturagintza hori nagusi eta helburu ezarri eta beste gauza oro, nahiz gizarte, nahiz jolitika, nahiz ideologia, helburu horren serbitzura etorriko dena. Orduan behintzat "libro" biziko ginate eta hori, bere alienazio eta guzti, zerbait da. Asmo handitan amets eta inora gabeko bide makurretan ibil baino hobe, dudarik gabe.

Aldiz gure, nahia, erabakia eta asmoa herrigintza osoa baldin bada, eta hala dela nork uka, orduan beharturik gaude guziok lehen-bait-lehen, eta agian lagunarteka, azterketa zintzo bat egitera. Herrigintza ez da gure kontzientzia paketsu gordezea; herrigintza ez da herriaren prozesu luze eta bihurria gure gutzi eta nahikarietara errendatzea; herrigintza beste gauza askoren artean hau da, nagusiki: egin ahal genezakeena eginasmo hartzea; nahiko ez gendukeen bidea, forma eta itxura besarkatzea. Eta beste mila gauza, zuk, euskal adiskide horrek, nik bezain ongi dakizkizunak.

Horregatik ez gara euskalzaleok Deustuko sinposioan agertu eta mintza, entzun eta jardun. Katalunyako Trias Fargas, bankularia, datorkit berriro gogoetara. Duela zenbait egun, han esan dio "La Gaceta del Norte"-ko gazetalari bati: "Estatu federalaren egitura izango litzake Espainian formarik egokiena...". Non dugu gaur euskal bankularirik eta gizon botere-tsuri, horrelakorik esango duenik? Eta zer? Ez farrik egin. Zuk irakurle eta nik idazle, hori bera esan genezake. Baina, zuk eta nik hori eta gehiago esatea eta aldarrikatzea, hazirik erein ez den soroz lantzea bezala dela deritzat

G. ANSOLA



bazkari onaren zarpagarria eta txarraren estalgarria

LA CASA DEL CAFE

Juan Jiondo

San Marzal, 19 - Urrut. 413801 Donostia

ETXEO- ANDRE: IRAUN ABAZI ZURE ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba' dezu ATOMIZADO LAGARTO — jaboia erabilli beti Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jabo bakarra Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena.

JABON LAGARTO!

zure etxea USURBILEN

sarrera 50.000 pezetan

ordainketarako erreztasun osoz

- ATXEGA-ALDE
- Gipuzkoan urigintza egokienean
- Lareun etxe bizitza berriak
- Orain duzu etxe bizitza egokienean aukeratzeko garaia.
- Bai astelen eta ostiraletan arratsaldeko 4-6,30 an, Etxebeste Kalean, 5-2.º
- Ikus maketak aurrezki kutxa probintzialaren etxean Donostiako ofizinetan ere edozein egunetan bear duzun argitasun edo informaziorik jaso zenezake.



CSC

CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA AUZO-EGINTZA

Prim Kalean, 14-2 garrenean Urrutziña 426906-429942 DONOSTIAN

C. A. P. n.º 106.527/3




Donosti'ko Erri-Etxe'ko Aurrezki Kutxa

EUSKAL IRRATI SAIOAK

Banen baneko azikal Ongarri ta abonoak Belar Zuloak Erosi edo berritzeko diru aurreratzea Baserri, lur-tresnak ta abar Torelavega'ko Perira Joan etorriak

Baserriaren alde





**LEHEN JAUNARTZEA**

**BA OTE DA JAKINEKO ADINIK?**

Ohitu xamarrek gaude oraindik urte garai jakinean eta adin jakineko haurrak ikustera, lehenengo Jaunartzea egiten. Ez dugu horren aurka ezertxo ere, baina bai galdera bat egin beharra: Haurrari, haur bakoitzari begira, haur bakoitzaren premiari begira jarri izan ohi al dugu jakineko adin hori eta jakineko urtegarai hori? Izan ere, haurrak jaunartzeke benetako nahia behar luke eta benetako prestaera ere bai. Kontuan hartzen ote ditugu bi alde hauek haur batek noiz jaunartuko duen erabakitzean?

Egia da Pazko garaia berez dela egokia lehenengo aldiz jaunartzeko. Baina haurrak hain dira ezberdinak familia batetik bestera, gizarte batetik bestera eta haur bakoitza bestetatik!

Ez haurrak bete dituen urteak eta ez kristau ikasbidean egin dituen urteak, ez dute berez adierazten une hori gauza den edo heldua den bere lehenbiziko jaunartzea egiteko momentura. Sei, zortzi, hamar urte edo gehiago agian, beharko dituzte zenbait haurrek behar bezala une hortara iristeko.

Ez da aski pertsonaz kanpoko legee bakarririk obeditzea. Haur bakoitzak bere berezko legeak erakutsiko dizkigu arretaz aztertzen badugu.

Honoko haur honek, nahiz eta zortzi urte izan eta hirugarren ikastaroan ibili, otoitz egiten al du bere eguneroko bizitzan? Ba al du jaunartzeko gogorik?

Eta baldin badu, nolaz adierazten du gogo hori: pertsona helduak bezala jokatu nahi duelako... besteek egiten dutena berak ere egin nahi lukeelako, egun haundi bat igaro nahi duelako? Bere barruan zer esan nahi du jaunartzeko gogo horrek?

Haur horrentzat Jainkoak "NORBAIT" izan beharko luke. Eta jaunartzen duten besteek ere hobe izateko laguntza bat bezala ikusi beharko lituzke. Haur horrek bere Jainkoaganako bizitza gurasoengandik aparte bizitzeko gauza izan behar du.

Familiak, zer esanik ez, prestatu behar du haurra Jainkoaganako harremanetarako. Zenbat eta zenbat gauzagatik eskerrak ematen, besteekin gauzak elkar-bizituen, Jaunaren hitza ausnartzen.

Eta beste urte pare bat itxoin behar bada, utz dezagun lasai umea pakean.

Oraikoa argitara ematen ditugun bi lantxoak, urte honetako urtarri-lean Atau San Gregorion izan zen idaz-txapelketan bigarren saria irabazi zutenak dira. Bata, «ATAUN» izenekoa, 11-14 urte bitarteko mailan saritua, eta Maria Pilar Mintegik idatzia, eta bestea 11 urtetik beherako artean saritua eta Juan Joxe Mintegik idatzia.

**ATAUN**

Atau da Gipuzko'n dagon erri'rik luzeena 16 kilometro ditu. Iru erri txikitzen zatitzen da eta dire: San Gregorio, Aya eta San Martin. Ni San Gregorion bizi naiz.

Atau da Gipuzkoa'ko aizkeneko erria egitendu Naparrearrekin frontera.

Atau dago mendi tartean bere mendi nagusienak dire: Mahomendi, Muski, Aitxu, Oña, etc.

Biztanleak euskaldunak dire.

Orain emakume bat daukagu alkate eta bera San Gregoriko da: Sabiñe Zurutuza. Atau'en udletxe bat dago iru erri txiki oyentzat eta dago San Martin'en.

Ikastolak iruetan arkitzen dire, eta baita elizak eta dendak eta beste gauz asko. Bertatik pasatzen diren errekak Agauntza du izena.

Pestak ere erritxo bakoitzean egiten dire bainan ez dire egun eta il berdinean izeten. Iru erritxontzat sendagille bat bakarra dago eta ura San Martin'en arkitzen da. Atau'en baita daude lantokiak ahuek txikiak dire eta ez dira importanteak.


MARIA PILAR MINTEGI (Oier)

**KIROLAK**

Neri asko gustatzen dituzte kirolak. Geiena futbola. Ni Real Sociedaden alde nago. Espainiaren porteroak obena Iribar da, eta portero ori ATL. Bilbaukoa da. Gero bigarren porteroak obena Barcelonakoa da, Reina. Eta irugarren porteroak obena R. Sociadako, Esnaola. Atzo jokatu zuten R. Sociaderek Espainiaren kontra. Eta R. Sociaderek irabazizun 4-1. Ni R. Sociadaren alde nago Donostikoa dala-

ko. Esango dizuet kirol batzuk. Eta dira. Futbola, pelota, hokei, baloncesto, balonmano, gimnasia, rugbi, kotxe karrerak, moto karrerak eta abar. R. Sociadaren alignacioa hau da. Esnaola, Gorriti, Martinez, Ormaetxea, Arzak, Gaztelu, Urreisti, Urriaga, Silbestre, Mendiluze eta Boronat.

JUAN JOXE MINTEGI (Mattin)



Karmele Kajarabille  
7 urte  
"Jakintza" Ikastola  
Donostia

**“GOIZALDI”**

**Dantzariak Ikastolari**

Euskal Herriko ikastolaok, agur! Eskutitz hau hartu duzuelarik harritu bide zarete noski, baina ez zaitezte ikara!

GOIZALDI dantza taldea sortu zela 25 urte muga hori aurtun haundikiro ospatu nahi dugu. Urte muga hori dela eta, geure baitan dugun asmo baten berri eman nahi dizuegu.

Garrantzi haundiko asmo dela uste dugu, bai guretzat bai zuen-

tzat, eta azken finean zuen eta gure den ikastolarentzat. Euskal Herri osoarentzat alegia.

Hona hemen gure asmoa:

«Ikastolen alde dirua biltzeko egiten diren jaialdietara joateko prest dago GOIZALDI».


Egiteko hori ahal denik eta ondoena betetzen saiatuko gara, euskaldun garen aldetik eta Euskal Herriaren alde.

Aldez aurretik ondotoxo dakigu ikastolaren diru problema ez dugula erabat erabakiko, baina dena dela geure dantza, txistu, kantu ta euskal giroaz ahal duguntxo egiteko prest gaude. Gure laguntza txikia daiteke, baina txiki ta guzti ikastolaren alde borondate guztiz eman izango da.

Nahi duzuen arte. Zuek noiz deituko zai gaude.

Agur, eta ikus arte.

(Euskal Dantzari Taldea)  
GOIZALDIK



ERAMAN - EKARRIak  
AGENCIA  
**Transportes A L E**  
EUSKAL IRRATSAIOAK  
ERRI GUZTIRAKO  
Urrutizkiak: 421369 - 427726  
Iparagaitza, 8 - DONOSTIA



## ZINEA

FORUM SAIOAK  
ETA ZINEA

Zineaz orain artean idatzi dudana, bi alderdi kontuan harturik egin dut: lurralde zehatz bateko (Iparrameriketako) zinea batetik, eta hango filmen egileak, bestetik, gogoan izani.

Horiek horrela, komeria, bildurrezko zinea, suspensekoa nahiz politikazkoaren inguruan ibili gara, eta baita, Griffith-enganetik Orson Welles-enganaino izan diren zuzendari batzuen inguruan ere.

Honela, Zeruko Argiak kultura gaietarako dituen orrialdeetan ate bat zabaldu nahi izan diogu zine gaiari.

Arlo hau, ordea, oso zabaldu dugu, eta aurrera begira lan handia dagoela esango nuke. Bada, nahiz zinea adierazbide izan, ez da hori bakarrik.

Kultura dela ere, maiz aski esan eta entzun dugu. Baina ez dugu, kultura dela-ta, itsu-mustuan onartu behar. Mamitu eta duen muineraino sartu baizik, daraman ikasgaia geureganatzeko.

Industria aurpegi bat ere badu zineak, askotan esan eta entzun dugunez. Diru-ondarrak ere tartean dira dakigunez, eta filmen helburua, zergatia jakitera saiatu beharko dugu. Hauze da, hain zuzen, forum saioen egitekoa.

Zer diote beraz, gure herrietako fojumez aldizkari eta irratiek?

Zer ikastetako umei dagokien zineaz, eta zine-heziketaz?

Zer gure herrietan pelikulei buruz egiten diren kritikez?

Ezer gutxi, noski.

Ikusten denez, lan handia dugu arlo hau lantzen, zineak dituen indarrak geure onerako eskuratzen, kulturabide honi, bestela esan, bere oztipo eta guzi erantzun bat ematen.

Eta forum saioen eraketari helduz gero, hiru puntu ditugu kontuan hartu beharrezkoak: Saioa non egiten den, nola egiten den, eta aztergai zein pelikula hautatzen den.

## 1. NON EGITEN DEN

Zein lurraldetan edo herritan alegia. Trintxerpe-n ala Azpeitian egiteak, esate baterako, antolaketa ezberdina eskatzen du. Han eta hemen ez bait da berdintasunik izango jendearen hizkuntza nahiz heziketa aldetik. Pelikularen esan nahia berdina litzake, baina agertzeko erak, irakaspideak, ezberdina behar du izan.

Urteetan zehar forum hauek, erdaraz egin dira, eta egiten dira. Euskaldunok, ordea, beharrezko dugu beste planteamendu bat. Zine-kultura gure herrietara euskalduniki oinarritu nahi baldin badugu, forum saioak euskaraz egitea behartuak gaude.

Kultura arloan zinea baino bide garrantzitsuagorik ez ote den galdazake batek edo beste. Noski! Hala ere, hau ez dugu bide baztergarria, eta heldu egin behar genioke.

Galdera mota hauek bestetik, gure arteko giro nahasiaren lekuko dira.

## 2. FORUM SAIOA NOLA PRESTATU

Egin aurretik, garrantzi handia du saioa behar bezala prestatzeak. Ikusiko den pelikularen teknika txartela (ficha técnica) eta pelikularen gaia aurrez, hitzez nahiz idatziz adi araztea beharrezko da. Filmaren Jaburpena argitasun batzuekin emateari, egoki deritzagu.

Adibidez, Bergman-ek egindako film bat jokatu behar baldin badugu, zuzendari argibide batzuk ematea on litzake. Asko bait dira gai batetik pelikula bat baino gehiagoren bitartez mintzo direnak.

Forum baten zatirik nagusia, ordea, filma ikusi ondoren egiten den elkarrizketa da. Akatsik handienak ere, garai honetan izaten dira. Elkarrizketa motzak edo forum zuzendarika egindako bakarrizketak izaten dira gehienetan. Beste asotan, ikusleen heziketarik eza nabari da. Bestetan berriz, antolaketa egokirik eza.

Zuzendariak ere, zer ikusi handia du elkarrizketa giroa pizteko edo moteltzeko. Zine aldetik hornitua eta elkarrizketatsua behar du saio hauek gidatuko dituen.

## 3. PELIKULA AUKERAKETA

Pelikula aukeratzekoan, zer nahi dugun argi eta garbi jakin behar dugu: Zine-zuzendari baten joera ziklo baten bidez ezagutu, gai bati buruz zinegileen erantzun ezberdinak jakin, nazio batetan egiten den zinekeraz edo zine-mugimendu batetik (nouvelle vague, free cinema e.a.) jabetu, alegiazko zinemak dituen bitxitasunak ikusi, eta abar. Garbi jakin dezagun beraz, zertara goazen.

Zinea ikusten ikasteko, nire ustez, zine-zuzendari baten pelikula sorta bat jokatzeko da. Zuzendari horren aldeketa eta joerak ezagutuko ditugu, eta bide batez, zinea egiteko teknika.

Bergman zuzendaria har badezagu, hasiera batetan Jaungoikoagan zuen itxaropena sumatuko diogu (Zazpigarren zigilua). Geroztik, zalantzan du itxaropen hori (Jaunartzaileak), eta azkenik, gizonaren muinera jo du, Jaungoikoa alde batetara utzirik (Persona).

Bergman-ek ziklo bat eratuko baldin bagendu, beraz, zuzendaria aldeketa hauen bidez ezagutuko genduke.

Egokia da, nazio batetako zinekeraren ezaugarriak zituzten pelikulak ikusi eta elkarrizketatzea ere. Komeria frantsesa, free cinema inglesa, neorealismo italiarra, Txekoslovakia eta Poloniako politika zinea, Claubert Rocha eta Brasilgo zinea, e.a. aztertzea, ez legoke gaizki.

Forum saioak, badute beste arazo, hutsune eta zailtasunik ere, baina beude honenbestez gaurkoagatik.

XABIER UNANUE

## NAFARROA LAU URTAROETAN...

## betiko hildotik!

Ez nuen ikusteko asmorik. Egin berria dugun euskal-film horrek ez zidan zirika handirik egiten. Eta hori gabe nola abiatu, nola pausorik eman udaberriko jai-goiz sutsu hauetan? Ez gara euskaldunok film alorra jorratzen gehiegi saiatu. Filmetan ez dugu gure izaera zer denik ikasiko... Inor ez baita oraingoz ausartu horrelakorik egiten. Gure artean arrotz den komunikabide horietako bat dugu zinea. Ez dago ukatzerik. Eta, serioak izan gaitzen, «Cancha vasca» eta Juan de Orduñak egindako lanei jotzea ez da ezer asko nere iritzia suntsitzeko. Danok dakigun zirpilleriaz beterik dauden lanak besterik ez dira ta... Gure zokoetan egiten diren txantxokeria farragarrietatik at, zer erakusten digute ba? Caro Baroja anaiek erantsi dioten izenburua, berriz, zerbaitezarako gauza izan bazen, nere nahigabe eta sumo txarrak gutxitzeko baino, gainditzeko indar gehiago izan zuen...

Halaz ere ez nintzen ikusi gabe gelditu. Tolosako Euskal-Kultur Hamabostaldia zela-ta Leidor zinetoki dotorearen aurrean aurkitu nintzen. Etxeko patxada goxoa utzi, Tolosako ikastolaren alde eskatzen ari ziren neska koxkorrei txanpon batzuk bota —ez bai dut nere patriketan diru pilorik izaten—, zalantza guztiak alde batera bota eta, tira, bosturokoa ordaindurik, Leidor eskaintzen zidan itzal ilunean barrendu nintzen. Bi minutu pasa zirela hasieratik esan zidan txarteluzulataileak... eta hala izan behar zuen, agian. Ametsak zulo beltz hartan sartzen ari nintzen bitartean Eddy Merckx eta besteak, Berazubi zelairuntz zetozen itsasara koloredun bezain arin... Gero, ateratzekoetan, Larruket eta Basterretxeak egindako «Ama-Lur» askoz ere helduagoa zela esan zidatenean ez nuen sineskaitzat hartu. «Ama-Lur» ez eta «Nafarroa lau urtaroeetan» ikustea aurkitu nuen negargarri...

Bainan diodan zein eta nolakoak diren nik ezartzen dizkiodan akatsak, eta funtsean, benetako karkoa non datzan. Egileen helburuak jorratzen ez naiz arituko, ez eta haien jomugari begiratzen. Bakoi-tzak izan ditzake bereak. Beste komunikabideren antzera, zineak ere baduela bere mintzaera berezia esan behar da hasieratik. Horri heltzen ez bazaio, nahi diren gauza asko gertatzen dira askotan. Ez beti, nahitanahiez, irudi-mintzera ezagutzen ez dutelako egileek, batzuetan zinea idatz mailara jeixten —igotzen?— dutelako, baizik. Bi mintzaera berdinak balira bezala... Irudiak berak du, berez, zer esanik. Hitzak erasten zaizkionean, berriz, irudiak bat eta gizahitzak beste bat adieraztea gerta daiteke. Honekin ez noa Caro Baroja anaiei duten jakinduria ukatzea, ez, filmaz, ez Euskal-Herriari buruz. Ausarkeria axolakabea izango litzake nere aldetik... Honekin, zerbaiz ahaztu dutela gure anaia ospetsu hauek, eta hori ere gehiegi iruditzen bazaio norbaiti, irudiak bere aldetik bereak esan dituela, behar bada egileak konturatu gabe. Eskuetatik zerbaitek ihes egin diela, alegia...

Honako film hau, lau zutaberen gainean eraikita datorkigu. Hau da: negua, udaberria, uda eta udazkena. Nafarroak, urtaroean zehar, bizimodua, ohitura eta aurpegi osoa aldatzen duelako, dirudienez, eguraldi aldaeraren eskutik... Zutabe

horiek jaso baino lehen, egileek jakin arazi digute, nafarrek bi alde dituztela: bat, ezguna, kaleetako poster guztietan ikus dezakeguna, zaratatsua, zezenzalea, atzerritarren ikusgarria, ardoz bustia, gazte-giro larritsu aparta, eta hori dena, txupinazo-etzanda entzutea biltzen direnen dehadar izugarria dela medio jakiten dugu. Bestea, izutu ez gaitzen nonbait, berriz, sakonagoa, barrungoagoa ezagutua noski omen da, ez.

Alde hau, itxura denez, fraile-ete miresgarri bateko klaustroa dela bide. Oro har: folklorea eta erlijiosotasuna urtaro bakoitzaren barrena.

Bi alde horiek gogoan sendo har ditzagun, eskusoinua, txistua, nafarjotak eta noizbaiteko gregoriano bikaina, hor ditugu lekuko...

Aurreiritzi horietatik abiatuz gero, jakina, Nafarroa zermolokoa den agirian dago. Caro Baroja anaiei ez baitie logikak huts egiten.

Nafarrak, langileak ere izango dira ba? Dudarik gabe: artzaiak, segalariak, ikazkinak, nekazariak, haizkolariak, artzak, su-arotzak, perralariak etab. Besterik ez da ikusten behinik behin. Hori «dio» filmak. Baroja anaiek... ez dut uste.

Ez pentsa hor ageri zaigun folklorea ez dela harrigarria, eta areago, aberatsa. Gure Herriak, eta gure Herriaren zati handienak, Nafarroa kalegia, beti izan ohi du folklorea bizia, herrikoa. Benetan interesgarria delakotan nago filma alde horretatik.

Nafarra ez izan arren —nahiz eta haran bat edo beste ezagutu—, euskalduna izateak prestatzen dizkit begi argiak Nafarroa miresteke. Nola ez poztu mendi eta zelai goxo, zuhaitz lirain eta adartsu, etxe apain, malkar zakar, baso... eta kolore berdea, beti berdea, belarrik eta garoak ikustean? Gure jaiotetxeko inguruak horrelatsu ez ote ziran bada? Nere etxearen teilatu gainera ez naiz harrika hasiko, ezeta nere arbaso eta gurasoen bizimoduari oztoporik jartzen ere.

Caro Baroja anaiek esan dituztenak oso ongi esanak iruditzen zaizkit, baina esandakoekin ez dugu Nafarroa osorik ezagutuko. Zerbaiz gehixeago erantsi behar zaio... Nafarroa gehiago da-ta.

Izan ere, noizko Nafarroaz ari dira? Patxadan ikusten baduzu, egungoaz ez direla ari berehala aurkituko zara. Ezta gutxiagorik ere! Izenburuan «Nafarroa» esan arren, aida bat bakarrik, zati bat nafarroen bizimoduetatik bat —base-rrikoa, basotetxekoa—, aztertzen zaigu aurre aurrean. (Sasi mugaz haruntzagoko Nafarroak agertzea merezi ote lukeen ala ez, utz dezagun oraingoz). Non dira kaletarrak, non ote lantegietako langileak, non egungo izaera larri hori,

non herri industrializatua, non artistak, non...? Ez dela herria aitortu beharko? Film honekin lehenengo Nafarroari, zaharrari, galtzen ari den Nafarroari, begirada triste, goibeldua botatzen zaiola ez dit inork ukatuko. Askotan esaten zaigu filmaren zehar: «hau ere galtzen ari da», «geroko giroa besterik izango da», «bizimodu mota hau gutxitzen ari da», «herri koxkorrek hustuzen doaz» etab.

Erljioari bagazokio berriz, panorama negargarriagoa iruditu zait. Nik ez dut erlijiosotasun fitxik ikusi, fetitxismo eta primitibismo ugari baizik. Noizpait azaltzen bada, ordea, orduan axala besterik ez.

Hara karkoa non datzan, nere ustez: Erdi Aroko kutsua dariola gure Nafarroa kuttun honek. Ez dela egun egungoa, ez eta betikoa. Ez dela osoa. Betiko tokitik ez garel mugitu. Fil hau ez dela ispi luze garbia. Baztar bati josi direla Caro Baroja anaiek, zoritxarrez...

Planteamendu honek dituen ondorioak, ni baino azkarragoren batek atereak izango ditu honez gero. Benetako Nafarroa mendi tartean dagoela, mugitu nahi ezik... besteak sasikumeak izango balira bezala. Kalea ikusten dugunetan Aste Santuko prozesioak erakusten zaizkigu...

Hil zorrian dagoen bizimodu horrekin batera gure euskara pikurara joango zaigula. Baserritik plazetara botata, ez duela luzaroko iraungo. Zaharrak bakarrik mintzaten baitira filman...

Euskal-Herria ezagutzen ez dutenentzat, aspaldi bukatu ziren giroei loturik, egoskortasun txolin batez beterik, azaltzen dira nafarroak, eta luzatuaz luzatuaz, euskaldun guztiok: herri atzeratu bat eta atzeratasun hortatik atera nahi eza galanta!

Holako ondorioak atera ditzaketen hotzikara txar batek, eztenkada gogorra sartu zidan bihotzean, azken minutuak ondatuaz. Gero ere mendi zokoetan izkutatu beharko, heldurrez josita, benetako herria, beldurra itxura besteen aurrean azaltzen irauten badugu. Errugabeko sorginkeria beltz batek, antzina, aurrebideetatik jotzera eragotzi baligu bezalaxe. Zorioneko Euskal-Herri honek noizkorako utzi nahi ote du geroak sortarazten dion izua?

Gogo handirik gabe hasi nintzen bainan goibel, mindurik bihurtu nintzen Tolosako eguzki kixkalgarri. Beste Eddy batek —Peelma nek—, irabazi omen zuen Berazu biko hausterrean. Bost axola! Nere arbasoak bezain euskaldun izateki grina aspaldian daukat bihotzean bainan beste herrien artean euskalduna izateko, beste nonbaitetik atera beharko kontuak. Ez filr alorretik...

Jesus Mari Zalakain

MUEBLES

URRETAVIZCAYA

1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK - EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS. 46

GAZTEZ (Vitoria)

BAR - RESTAURANTE

AURRERA

HAUXE DUZU ZURE JATETXEA

Urbieta, 12

Urrut.: 411528 - 412578

DONOSTIAN



YOGUR  
GURELESA  
GOGOZKOENA





## pasaia donibane

### ESTROPADAK

Udakin batean, estropaden giroan abiatzen gera. Estropadazaleak, hor ari zaizkigu beren iritziak ematen nor izango ote diren aurtengo txapelak.

Ekainaren 3an, traineru estropada ospatuko da Santanderren. Bizkaitik eta Gipuzkoatik tripulazio bat agertuko da.

Igande honetako ere, Pasaia S. Pedron, Gipuzkoako Batel Txapelketa antolatuko izan da. S. Pedro, Lasarte, Beraun eta Tolosa agertuko omen dira txapelketa honetara. Sanjuandarrak ez omen dira azalduko, zurrumurruei jaramonik egiten badiogu behintzat. Lehenbiko bi klasifikatuek, hil honen 28 eta 29an Pasaia ibaian ospatuko den Espainako Txapelketan parte hartuko dute.

### BIDEA KONPONDUA

Trintxerpeko Gral. Mola kalea guztiz zulatua eta desegina zegoela, duela zenbait aste, txoko honetan apatu genduen. Auto bide baino are gurbide zirudiela, genion. Orain berriz, egokitua eta txoil konpondua utzi digute. Honek ez du esan nahi, agintariek guk idatzitako lerroei jaramonik egin diotenik. Gu gauerdiko ahuntzaren ezutla baino ez bai gera. Dena dela, autoz eta autobusez ibiltzen gerantzat, itsaso bare eta leunaren gainean gabilzala iruditzen zaigu. Bijoakie gure zorion berona agintariei!

### MENDIZALEAK

Itsas-Mendi Elkartek antolatuta, Maiatzaren 13an, Vilgarren Ibi-lialdi Neurtua ospatu zen. Hogei eta hosi hirukote aurkeztu edo presentatu ziren 10 ordu terdi iraun zuen ibilialdira. Hona hemen irabazleak:

- 1.º) Tomás Berodio  
Rosa M.ª Moreno  
José M.ª Yarza

XABIER Elkartekoak.  
2garren) Miguel A. Alberdi  
José Eskribano  
José Ramón Puy

ITSAS-MENDI Elkartekoak.  
Bai irabazle eta baita parte hartu dutenei ere, gure zorion bene-takoa bialtzen diegu.

### HERIOTZA

Ixidora Alzua (Joxe M. Mancisidoren alarguna), 86 urtetan hil zitzaigun Maiatzaren 25ean.

Har bezate bere seme-alabek gure dolumin gartsuena!

Iñalurretak

## deba

### ANTOKI SAILA

Herriko agintaria hasia dugu aipatzen hizketaldiz, solasez eta abarrez Itziar aldean «zona industrial» egiteko asmoz ari diren lur presaketaz.

Ziur ez dakigu nor diren hor orduradun, baina nola nahi ere diu erruz duten batzuk.

Diotenez izugarriko aldaketak zango dira Itziar aldean baldin eta orko asmoak aurrera eramaten bajaran. Onerako? Kaltetarako? Ez da erraz erantzuten. Baina herritarrok ondo aztertu eta ausnartu behar dituzte honelako arazoak agian dago.

Lanak aurrera dihoaz eta bildurara herriak parte gutxi izango ote duen arazo honi dagozkion erabakieriaz hartzera.

Zergatik denon artean aukeratuako batzorde bat ez aukera? Teknika, soziologia eta beste gai asotaz gizon ikasiak beharko genituzke. Herrikoiez ez bagara osatzen lanpotik ekarriz. Merezki duela uste dut aurrez honelako azterketa egitea Debari eta Itziarri begira.

Ezer ez badugu egiten, patxadan arraitzen badugu, ez gaitezuen harri or dabilzanek, darabilzkiten diru

pila bildurgarrian emankizuna helburu izanik gauzak beren onerako egiteaz.

eta guzti inaguratu ere alazankoa. Ez zuen gutxiagorik merezi, hain-irritzi apal hau irakurtzean badi-teke norbaitek denbora galtzea dela uste izatea. Herrien eskubideak aurrera eramane ahal izateko bide derizkiogu guk.

### EUTSI PELOTARI GEUREA DATA

«Euskal jolas» izenez jaio zaigu Deban pelotazaleen elkarte. Gure herrian euskal kirol honentzat zaletasun gutxi dagoela ezin uka dezakegu.

Baina banaka batzuk izan arren jarraitzaileak, hor ikusten ditugu beren atsedean ordutan pelotatokia joko ta ke.

Berpiztuko ote bazkun honek Deban pelota? Hasiara bikaina dute lanean. Paletazko txapelketa bukatu ondoren, Deba ibarrakoei sartuak dira hiru mailatan.

Bijoakio gure zorionik gartsuena «Euskal Jolas» bazkunari. Poztuko ginake biziro kirol jator honen euskarri lerdan gertatuko balitz.

IDIAKEZ

## azpeitia

### MAISU HERRIKOI BAT

GURUTZ Ansola azpeitiar herri-kideak, azkenaldiotan lan ederrik eskaini dauku. Bere azken liburua «Usaren agintaritzak eta dolarraren ahulezia». Gero argitaldariak, bere 21gn zenbakian argitaratu du. Honekin bateratsu Jakinek elkar-lanean hornituriko «Koperatibak» eskaini zigan, eta berton, Gurutzen «Euskal koperatibismoa haro berri baten atondoan» azterketa lan sakon bat irakurri ahal izan dugu.

Ekonomi alorrean oso ezaguna dugu Ansola azpeitiarra, eta lehenik ere beste liburu baten egile. Azken liburua honetan Gurutz ere askotaz maisu agertzen zaigu. Eta maisu bezala, bere azterketaren ondoren, liburua argitaratu baino lehen beronen mamiaz hitzaldi luze bat etzun ahal izan nion, Nixonen erabaki larriek egiztatu zuten.

Ansola gogoetalarari ere badugu. Ekintzaz hornituriko pentasalarri trebea, egungo Euskal-Herriak zerbait funtsez taxutzeko behar beharrezko gogoetalarari horietako.

Idazle bezala, Gurutzen bidea guztion eredu da. Ekonomiaz orainokoa ezer askorik ez da idatzi izan, eta hitz tekniku askoren beharretan arkitzen da alor hau. Halabaina oztopok ez dute kamustu azpeitiarraren lumaren zorrotza, hara berak non darabiltzian «sobragoa», «hazkunde», «landuketa», etab. Ekonomi sailean errotzen ari diren hitz egokiak. Leku ederrean gelditu dira orain bostpatsei urte, gure herrian bertan, ekonomiaz euskaraz mintzatzerik ez zegoela eginaz ari zitzaizkigun erdelzaleak! Hok ez dute Euskara Batuen premiarik deus eresumatzen. «Agur» eta gisako hitz goxoak esateko besterik ez bait dute euskara. Irakurle, deitu zazu eurien etxerat egunen baten; ikusiko duzu zelako erdera batu orokarrean erantzungo dizuten. Baina gu ere ez gara harritzen halako erdelzaleak Euskara Batuen etsai izateaz; egunero gertaera bakunak horixe ikasazten baitugu.

Gurutz maiz entzun izan diogu: «euskara gaintitu egin behar dugu», ez diezaikeagu bizitza guztia hikamikatan xahu... Bai Gurutz egia diok, hik bide bat aukeratu duk. Bide horixe jarraitzen diok, etxean, ikastetxean, ikastolan, aldi-zkari eta liburutan. Hauxe duk ez besterik euskara gaintitzeko hik eskaintzen digukan bidea. Honetan eredu hagu.

### TOLOSA ALDIAN

Garaiz jaso genduen Ondarabaldiskideak bilaliriko Hamabostaldien egitaraua. Tolosa alderuntz bi egunez besterik ez ginen izan. Eta bietan hitzaldietara. Ekonomiaz eta Euskara Batuz mintzatu ziren harako hizlariak eta jendea aunitz gainezka. Ondarabaldiskideak su-harrari, datorren urterako entzuleok toki ukan dezagun, areto bikainago bat eskatuko genioke; arras

murritza bait zen Aurrezki Kutxarena.

Tolosako Hamabostaldia bi urteotan erabat eratu izan da, ez dago dudarik Gipuzkoako kultur-jaialdien abangoardian dagoela. Urtez urte antolatu eta mehoratzeko asmotan diru bertako antolatzaileak. Asmo guztiogatik eta orainarte egin duzuenagatik, gure zorionak Aurrezki Lizardi Elkarte!

### PARROKIKO HITZALDIAK

Aita Elustondo Bidanik seme prantzizkotarrak aste gutxian zehar hitzaldiak egin ditu. Parrokiko aretoan jendea aisa kabitua omen da, bestela esan oso jende gutxi joan da.

Hitzaldi bakoitzaren ondoren elkarizketa interesgarriak egin dira, zeren Elustondo jaunak gai zorrotzak eta egunekoak ukitu bait ditu. Pena hain jende gutxi joatea; baina guk ez dadukagu inori deus ere esatekorik, geuk ez baitugu egun baten ere joaterik izan.

### BUKATU DUTE!!

Bukatu dute bukatu hain amai-gaitza zen autobidea edo bariantea. Lehengo asteartez gobernadore jaun beste denboraz egongo ondoren nahi luke eta konprenitzen da horrenbeste...

Guk Landetako barrio industriatsura egunean bi joan-etorri egiten ditugunok, eta hainbestetan autobide honen beharra sumatatu dugunok, ez dezaikegu kritika kontrakar bat egin nahiz eta bariante honen egituraz bat ez etorri.

Egin dute bai eta fruitu onak eman ditzala.

ANATSAN

## segura

### HITZALDIAK

Hil honen barruan hitzaldiak egon dira Zegama, Segura eta Idiazabal, hiru herrietako ikastola Batzordeak eratu. Hizlaria, hain ezaguna den aita Karlos Goena, gure herritarra. Beste ezer esan baino lehen, gure eskerrak berari, beti prestatzen denez gure eskabidetarari.

Azkenengo urte hauetan, indarra hartzen ari dira ikastolak herri hauetan. Gurasoak geroz eta gehiago arduratzen dira heuren haurretaz, eta heziketak sortzen dituen arazoetat. Hori horrela dela, eta beharra ikusirik, hitzaldi hauek eratzeko hiru ikastolak elkartu dira. Batuketa hau pozgarria da benetan eta aspaldidanik datozen herri arteko ezin ikusiak alde batera utzi direla adierazten digute.

Haurren heziketak izan ziren hitzaldi denak, nahiz eta herri bakoitzean puntu edo gai desberdinak aztertu. Denaren erresuma bat egitea ez da xamurra, baina erabilgaitako gai batzuk azaltzen ahalginduko naiz.

Goenaren iritzi, familia da eta izan behar du haur baten heziketarako lehen oinarri. Gizartea aldatuz doa eta gurasoak, gauza batzuek edo besteagatik, ez dute denborarik hartzen heuren haurrenkin egoteko. Horregatik, gurasoen zerekin jokabide zaber eta okerrak, azaldu zituen. Gaur egun, gurasoen heziketa haurren heziketarekin batera joan behar du.

Heziketa bat ezer imosatu gabekoa ez dela posible adierazi zuen behin eta berriz. Gurasoak eta andereñoak, nahiz heuren ez nahi izan, marka bat uzten dute haurra heziketa lanean, eta beste modu batera ezin daiteke hori izan. Bestalde, haur bakoitza eza-gutzen ahalgintzea, eta ezagutuaz bide egokienak irakastea, guraso eta andereñoen egin beharrik dira, zabarkerian eta gogorkerian erori gabe.

Hizkuntzaren garrantzia heziketa lanean izan zen beste gai bat. Sikoloji mailan, haur euskaldun bati, gaztelania bide delako heziketa baten dizkion kalteak agertu zituen garbi, gurasoen erresponzabilitate falta kritikatuaz. Zorituraz, gure artean ere baditugu horrelako gurasoak.

Hauek eta beste hainbat arazo aztertu zituen. Guztiak azaltzea lu-

zea egingo litzake.

Gurasoen erantzunak, itxaropenez beteta utzi gaitu. Ene ustez kezka handia dago guraso askotan. Zorionak. Baina bukatzeko, nik adierazi nahi dizuet, modan dagoen gauza bat ez zeratela ari egiten, baizik zeuren eginbeharra betetzen.

### SENDOTZAKO SAKRAMENTUA

Hilaren 20an, herriko 120 bat gaztek, sendotzako sakramentua hartu zuten, gotzai laguntzaile den Jose M.ª Setienen eskuetatik. Ongi prestatutako herri meza batean, egin zen sakramentu hartzea.

HARKAITZ

## aiete

### FESTAK

Bukatu dira aurtengo festak.

Jeneralean ondo egon dira, baina, jakina, ikuskizun batzuk beste batzuk baino atsegina izan dira herriarentzat: Euskal Jaia, Gurutzagaren inaugurazioa, umearren eguna eta guztiok ezaguna dugun Pantxikari omenaldia. Hezitokik sekulako beteaz egutu zuen gipuzkoar Oskarbi, lapurtar Pello eta Pantxo eta nafar Etxamendi eta Larralde abeslariak entzun gose. Zer esanik ez dago denak egon zirela ondo baina guretzat Etxamendi eta Larralde ondoen. Horrelako abeslari gehiagoren beharretan dagoela uste dugu Euskal Herria, hots, letrek ere zerbait esan dezatela. Oskarbi oso ondo abestuko du bainan guztira jota, guk, Etxamendi eta Larralde atsegina.

Umearren egunean, goizetik meza eta ondoren dantza lehiaketa. Arratsaldean, pintura eta abesti lehiaketak. Lazkao, Jakintza eta Aieteko ikastolako haurrek hartu zuten parte beste zenbait kolejiotako haurrekin batera. Abesti lehiaketan —halabeharrez— ikastolako haurrek irabazi zuten eta pintura lehiaketan ere berdin, nahiz hemen hizkuntza ez izan oztopo.

Oso bikaina Schola Cantorum taldeko dantzarien saioa eta ez hainbestekoa —gure iritziaren— Hasparrenko Elgar-Oinka neska dan-

tzari taldearen agerpena. Esan beharra dago, ordea, euria zela kausa, Elgar-Oinkakoez ez zetela beren trebetasun guztia agertzeko modurik izan. Eguraldi hobea opa diegu datorren urterako.

Atsegingarria Pantxikari egin genion bazkari omenaldia. Bertso bikainak entzuteko aukera eta Pantxika bera —79 urterekin— dantzan pandero joka deabruak harturik ikusteko ere bai. Zorionak Pantxika eta urte askotan izan dezazula hain bihotz gazte eta alegara!

### GURUTZIAGA


Izen honekin bataiatu dira eliza berritua eta bertan edo bere emango diren eginkizun guztiak.

Harriak harri, genre burua zerbait aiantzeko premian dagoela eta ospakizun batzuk eratu dira gure artean danden asmoen berri emateko. Maiatzak 10, A. Arrazolak «Gurutze irudia erti-lanetan» gaiari buruz hitzaldi garbi eta ondo tajutu bat eskaini zuen. Hitzaldi honen hasieran eta bukaeran «Santa Cecilia» abestaldearen saioa izan genuen. Saio ederra, entzungarria, herrikoia. Gure barruaren erti-atseden sor arazle. Maiatzak 17, beste era bateko ospakizun izan zen. Hasieran Parrokiako batzordeak «Gurutziaga» izenez ezagutuko den ekintza berriaren agerpena eman zuen. Hor aazaldu ziren bai asmoak bai helburuak. Gero Jose Mari Setien gotzai laguntzailearen hitzak entzun genituen eta bukatzeko Donosti-Ereski abestaldearen saioa. Aurreko astean entzun zena ez bestelakoa. Fina, lasai horietakoa, zalaparta gutxi baina pixu haundiko saioa. Talde honek etorkizun ederra du lanari ekiten badi.

Eta kronika hau bukatzeko, bi gauza: datorren urterako euskal kultura aste bat nahi genukeela antolatu. Lan zaila baina ziur gaudete gazte adoreaok tajuz eta tentuz aterako dugula aurrera; eta bigarren, beti bezala, izan ditugula kritika oso konstruktiboak izan ez diranak eta horiei eskaera bat egingo genieke, jaiak edo zer-nahi dela antolatzeko orduan bizkarra arrimatu dezatela lehen-lehenengo ordutik. Eta honenbestez, mila esker hainbeste buruhauste jasan beharra izan duten gazte guztiok.

1973ko maiatzak 25.

TXERTUBI



**NORK KUKURRUKU!!!**

**OLLARRAK**

**OLLOTEGIAN?**

...Ez. FAGOR'ek

**sukaldian**

**ORMAZABAL · DAR DUNIXI**

**ETXEGINTZA TA ETXE · TXUKUNKETARAKOAK**

**URALITA ORDEZKARIA**

<p><b>TOLOSA</b> Urrutizkiñak: Etxekoa 65 19 60 Landolokoa 65 19 33</p>	<p><b>URRETUXA</b> Urrutizkiñak: Landolokoa 67 17 84</p>
<p><b>ERAKUSTOKIA: Tolosa'n · Zumalakarregi, 7'gn</b></p>	

**JOSTUNDEGIA**
**MODISTEGIA**



**Urbietza, 66**
**DONOSTIA**



## bilbao

## SANTUTXUTIK

Santutxu —esan beharko da, ezagutzen ez dutenentzat— Bilboko hauzoz zabal eta zementutsu bat da. Baina zementu eta hauts horien artean —ezin esan oraindik "asfaltzoko hiria" denik, zoritzarrez asfaltzoko delako hori zenbait kaltetara ez bait da heldu— milaka pertsona bizi dira. Baina, hau ere esan beharko da, Santutxu Bilboko hauzozetik euskal kezkarik haundiena dutenetako bat da. Hau zalantzarik gabe esan daitekeela uste dut.

Eta Santutxu honetan euskaraz ikasten ari den jendea ugari izanik, gaueko ikastola horri laguntzeko, Maiatzaren 11an jaialdi bikain bat antolatatu zen Karmeloko eliza barruan. Honek norbait harri lezake, behar bada, baina arrazoia nahiko garbi dago. Pentsa bestela zer pasatu zitzaion Algortan, apur bat geroxeago, jaialdi honen antzeko bat antolatu nahi izan zuten: ez zuten baimenik lortu ahal izan. Eta berriki jakin izan dugu Pi de la Serra kantari katalanak ere ez duela kantatzerik izan, baimen faltaz, Bilboko antzoki batean.

Elizari egite honek, hala ere, badu alderdi txar bat: ez dela nahi bezain ondo entzuten zenbait kasutan.

Baina goazen aurera eta esan dezagun ze gisakoa jaialdia izan zen Santutxuko hau. Kantariak Arrati aldeko Patxo eta Oihartzunak, Usurbilgo Antton Haranburu, eta azkenik, Oskarbi izan ziren.

Jendeak, aho batez, jaialdiaren goimaila aitortu zuen. Programa bezala, entzun daitekeen onenarikoa izan zen. Patxok ahots ederra du eta polito kantatzen du. Ahalmen haundiko kantaria dugu. Oihartzunak izeneko taldea asko gustatu zitzaion, benetan. Penagarria hobeto ez entzun ahal izatea. Baina, nere, ustez, oso talde interesgarria dugu hau: badakite herritasuna eta artea bat egiten, eta hau behar beharrezkoa dugu. Jendeak biziki txalotu zituen Arratiar gazte hauek.

Antton Haranburu oso kantari fina da. Honi ere ez zitzaion behar bezala entzun, baina jendeak igerriz zion poeta eta kantari ona dela.

Eta azkenik, Oskarbi aipatu beharko da, nahiz eta talde honek inongo aipamenen beharrik ez izan. Hauek egin zuten saiorik luzeena eta jendearentzat atsegina ere. Gainera, azkeneko altabozak ere hobetoxeago jarriak ziren, eta hobeto entzun ahal izan genien hauek. Dena dela, jaialdia laburra bezain ona izan zen eta Santutxutarrak, eta Bilboko beste alderdietatik inuratuak ere, oso pozik joan ziren etxera, hurrengo noiz izango den pentsatuz.

Eta Santutxurekin hasi garenez gero, zerbaite esan nahi nuke bertan ospatzeko zen UMEEN EGUENA delako jaiaz. Umeen jai hau maiatzaren 13an zen egiteko, baina agintariak ez zuten baimenik eman nahi izan. Beraz, pentsatuta zeuden jolas eta abarrak ez ziren egin. Hala ere ez zen aniziazirik falta izan. Goizean mendira eraman zituzten umeak, eta gero, eguerdi aldera eta iluntzean, berebiziko giro jator eta alai sortu zen. Ez dakit kalean kantatzeko eta dantzatzeko inoren baimenik behar denik. Han behintzat ez zen horrelakorik nabaritu.

## CARLOS CABALLEROREN HITZALDIAK DEUSTUKO UNIBERTSITATEAN

Maiatzaren 14an eta 15ean Gasteizen irakaste den Caballero jaunak hitzaldi bi eman zitzaizkion Deustuko Unibertsitatean, Euskal Herriaren historiari buruz. Lehen egunean metodologiak eta historiografiak mintzatu zen. Behar bada, ez zuen gauza apartekorik esan. Bigarren egunean gai interesgarriago bat ikutu zuen: Konbentzio gerrak gure artean izan zuten eragina.

## XARIBARI TEATRO TALDEA DEUSTUAN

Maiatzaren 19an, larunbatez, eta Euskal Kultur Mintegiaren aurtengo azken ekintza bezala, Xaribari taldea izan genduen hemen. Alderdi hauetatik gabiltzanok ez dugu

askotan izaten honelako aukerarik antzerki polit, sakon, esanguratsu eta benetan ondo muntatutako bat ikusteko.

Gonbarazioak higuigarriak badira ere, nik orain arte ikusi dudana euskal teatro talderik onena dela esan behar dut. Lana oso ondo egiten dute: gezurra dirudi profesional ez diren batzuek nolako indarra ematen dioten beren interpretazioari, beren gorputzen mugimendu bakoitzari Badute eginkizun polita donostiar gazte hauek.

Txalorik beroenak teatro talde berri honi eta jarrai dezatela luzaro horrelaxe lanean. Euskal teatroak Xaribari bezalako taldeak behar ditu, eguneroko monotonian ez jausteko.

Penagarria jende gehiago ez inuratzeko. Eguna ere ez zen oso egokia izan. Baina, dudarik gabe, haratu ginenok ez genduen denborarik galdu. Ez horixe!

DEUSTUAR

## oiartzun 'dik

## MUSIKASTE

Gure irakurleek jakinien gañean egongo dira noski, zer dan Errenberian izandu diran MUSIKASTE batzarrak. Esan genezake errialde oietan, azkeneko urte oietan izandu diran batzarrerik garrantzi handienetakoa izandu dala. Bañan, batzuek, ez jakinien arkitzen diranak, galdetuko dute, Bañan zer izan da «musikaste» ori: (Coral Santa Cecilia'ko zuzendari Goñitar Inakiren, errentiaria bera, erantzuna ipintzen degu).

—Musikaste izandu da Andra Mari koruak eta batez ere bere zuzendari aita Ansoarenak eraturako batzar bat. Batzar ontan nai izandu da ikusi eta baita ere ikasi, zer izandu dan orain arte euskaldunen musika ta baita ere zer izango dan. Erabakiak gutxi geiago artuak izandu dira eta usten det ere konklusio batzuea bihurtu dirala.

## KARRIKA'KO AUZOAN SUA

Oiartzungo euskaldunen artian badegu esaera zar bat, beti ezbehar bat sortzen daniari esaten deguna: «ETSALA EZ BAIDA LO EGOTEN». Eta orain ere berriro esan bearko degu. Karrika'ko auzoan bi ume txoek jostaten dabiltzala, noski, bere etxeko iatze metari su eman diote. Jakin degunez bi edo iru meta iatze su artuak izandu dira. Ori da berria. Ori da eguneroko periodikoak esan digutena. Bañan beste gauz geiago gertatu ziran. Bat, errialde guztitatik jendia segituan bildu zala kea ikusi zuten. Eta orrela sua lenbailen kontrolatua izandu zan eta itzalia ere bai. Oraindik soziedade egoista ontan laun urkoaren alde joaten diran benetako gizonak baditugu. Ta bestea berriz, etxeko amona arkitzen zan, etxeko gela batean mintxo eta suaren larritasunean infortxore etzan oroituz gure amonaxo onen gelara ke asko sartzen zanik, eta begira or, beste sustoa non eraman zuten, amonaren gelara sartu ziran eta au oso asnas-berotuak arkitxu zutenian. Benetan ETSALA EZ DA LO EGOTEN... ZORIONAK BELOKI'TAR J.F.

Karrika'ko Beloki'tar J.F.'k Naparruko Vera de Bidasoa'ko errian karrera ziklista, umentzako antolatua, irabazi egin du. Aurreneko aldia zuen ateratzen zala ta bertan txapeldun gelditu da. Zorionak. Bañan jakin degu bera bakarra etzala Oiartzundik joan, baizik eta beste zazpi edo zortzi multilkozor ere an izandu dirala. Gauz zoragarria benetan. Bañan ala izango litzake, Oiartzungo elkarte batzuen menpean joanak izan balitz, bañan gertatzen da Irun'go C. ciklista, rekin joanak ditugula. Eta gure galdara, askotan egin degun galdera da: Eta Oiartzungo elkarte oiek, zer egiten dute? Denok dakigun bezala elkarte oiek beren izenaren ondian ipintzen dute «deportiva»; bañan nik uste azken aldi oietan, elkarteko gazte oiek ez dirala konurtzen berak ere zartzen ar dirala eta bere ondian eldu dirala beti-gora beste gazte asko eta gaztienak ez dutela batere laguntzarik billatzen. Len ere izandu dira elkarteak eta baita ere gazteengandik lan asko egin dutenak, orain berriz une illunean bizi gera, krisisan gerala dirudi.

Elkarteak; alaitu zuen biotzak eta erabakiak eta begira zure ondorenean dabiltzaten zuen baño gazte-gokoari eta lagun deiozute, badek eta ordua!

BAXURDE

## mutriku

## «KARITAS»

Orra or erriko «KARITAS», ainbeste lan eder egiten ari dan taldea. Talde bikain eta langillea. Zalaparta gutxi, baina egintza isil ederrak ugari. Asko dira gure errian talde onetaz ezer gutxi gogoritzen diranak, edo axola gutxi zaiztenak. Talde au osatzen duten gizon eta emakumeek, badute bai, beren buruaste ikaragarriak; ibilibearrak, une garrantz eta neketuak, baita arpegiz-arpegi azaldu bearra ere zerbaite laguntza iritxi ko badute.

Zenbat lan, zenbat ordu galtze!... naiz eta askotan eske-txarrez ordainduak izan.

Oraindik-orain, azken urte auetan egin bezala, aurtan ere KARITAS-ek antolatu du bederatzit urteko amairu urte bitarteko umeentzat egun batzuetako uda-garaia, «Kolonía Santurde» deritzan tokian gure ume txoak oporraldi alaiak igaro ditazten.

Neska-mutikoen garaiak txandaka izango dira. Neskatxoak Uztailaren amabostetik Abuztuaren leenera, eta mutikoen abuztuaren leenentik emezortzira.

Kolonía ortara joan nai duten neska-mutikoen gurasoek, gai oni buruz zerbaite geiago jakin nai badute, zuzendu bitez Maite Astigarragarena edo Maria Anjeles Basurkorengana. Bai batek nola besteak argi eta garbi aditzera eman go diote.

## ELKAR-LAGUNTZA

Igaro zan igandean gure Eleiz Parrokian, lanik gabe edo estuan berezietan arkitzen diranen alde diru-biltzea egin zan. Goiz-goizetik eliz atarrietan maaiak gerturik zeuden zerbaite laguntza jasotzeko. Baita jendeak arretaz erantzun ere. Eskerrik asko guziei.

## JAI ETA JAI BEZPERAKO MEZAK

Ekainaren aurretik, jai arratsaldeko Meza 7etan izango da, eta jai bezperatakoa illunabarreko 7 1/2-etan. Astegunetan orain artean bezala.

## LEENBIZIKO JAUNARTZEA

Igaro zan igandez, Andre Mari Jasokundearen Eleiz Nagusian ospatu zan umetxoan leenbiziko jaunartzea. Au dala eta eleizkizun goi-goienetakoa egin zan. Larogei umetxo ziran, leenengo aldiz zerutar janaria artu zutenak. Biotz garbiz, guziak elurra bezin txuri apaindurik, zerutik jexitako aingerutxoak ziruditen. Uraxe bai edertasuna! Eleizkizuna bukatzean, umetxoak ezpatadantzarien arkupetik atera ziran, eta ondoren Goizeko Izarrako dantzariak alakoxe dantzaldi politak dantzatu zituzten umetxoan goratzen. Egun alai benetan umetxo Jaun-artu berrien eguna. Zorionik biozkorrenak umetxoei eta beren gurasoei.

## ERIJOTZA

Maiatzaren 20an, il zan Furundarena Zumalabeter Kasildo, 77 urte zituelarik. G. B. Arrantzale jatorra, errotarren artean guztiz maiztatua. Ar bezate bere emazte eta anai-arrebek gure samii-agurra.

## GOIAN BEGO

Aurreroko argitaraldian azaldu bezala, Amerikar lurraldean, Idahon, il zan Elezgaraitar Imanol gizon jator eta euskaltzale sutsua. Il eta ogei egunen buruan bere gorputza Mutrikuratua izan zan; eta bai jendetzak ondo lagundu ere bere illobirarte. Bere erriaren maitale zan, eta naiz atzerrian il, bere gorpuk Euskalerrri maitagarri ontan lur artu zuen.

Bere emazte eta seme-alabei berritzen dieguz gure samin agurra.

## JAIOTZA

Egurbidetar Eujenoren emazte Mendizabaltar Trinidadek irugarren mutil eder bat izan du. Zorionak. ANDONEGI

## ATAUN

## Aiako Biztanleen Kopurua (1965 - 1973)

Ataun herria luzea dugu. Esaten dutenez, Gipuzkoako luzeenetakoa (Oinati handiagoa izan bide da).

Biztanle guttiakoa da, ordea. Urteko urtera, geroz eta biztanle guttiago bizi izan gara Aaunen. Gero ikusiko duzun bezala, duela zortzi

urte baino bostehun eta hamaika biztanle guttiago bizi gara.

Gaurko kronikatxo labor hau, Aiako festak direla eta moldatua da. Eta horregatik, Ataun osoko eta Aiako biztanleen kopurua jaso dut. Datoak, udaletzeko padroietatik atereak dira.

## ATAUN GUZTIAN

## AIAN

	ATAUN GUZTIAN	AIAN
1965. urtean	2.811 biztanle	288 biztanle
1966. »	2.800 »	280 »
1967. »	2.790 »	278 »
1968. »	2.789 »	270 »
1969. »	2.782 »	266 »
1970. »	2.752 »	260 »
1971. »	2.615 »	258 »
1972. »	2.302 »	256 »
1973. »	2.300 »	249 »

Kronikatxo honen haseran eman dudana ohar edo datoaren frogagarri, hara hor! Aian, duela zortzi urte baino hogeita hemeretzi biztanle guttiago bizi da. Benetan tamalgaria da gertakizun hau. Bai horixe! Izan ere, Ataunen ez dago gaur eguneroko ogia irabazterik. Baserritarrak guttitzuz doaz, gera-

tzen diren baserriak modernizatu gabeak dira (gutti batzu ez besteak, bederen), industriarik ez dugu... Hori dela eta, jendea kanpoko herrietara irten beharrean aurkitzen da: lana egin dezan, eta bide batez bizi dadin.

Trikuarrieta

## DONIBANE LOIZUNE UDAKO EUSKAL UNIBERSITATEA GAIK:

## 1. LITERATURA.

L. VILLASANTE: XVII garren mendeko literatura: Donibane Lohizuneko idazleen eskola.  
Y. SARASOLA: Gaurko literatura.  
J. HARITSCHELHAR: Idazki argitze lana. (arratsaldetan)

## 2. LINGUISTIKA

L. MICHELENA: Euskeraren ixtorioa.  
A. IRIGOYEN: Euskeraren estruktura morfo sintaktikoak.  
M. MOURGUIART: Linguistika eta erakaskuntza.

## 3. IXTORIA, EDERGINTZA

P. NARBATZ: Naparroako ereinua nola eta norekin sortu den.  
J. INTXAUSTI: Ipar Euskal Herria 1870-tik 1914-rat.  
J.-L. LIZUNDIA: Geografia politikoren ixtoria.  
J. SAN MARTIN: Lehengo Euskal edergintza  
— Harri aroko edergintza  
— Erdi aroko eta Pizkunde garai-ko edergintza eskolak.  
J. LARRAMENDI: Gaurko euskal edergintza.

## 4. EKONOMIA

G. ANTSOLA: Euskal Herriko indutria eta dirugintza gaurko gizartean.  
J.-L. LIZUNDIA: Ekonomiako bideak.  
X. IRIGARAY eta J.-L. DAVANT: Gaurko laborantza.

## 5. MATEMATIKA

K. SANTA MARIA: Logika matematika.  
J.-L. TXILLARDEGI: Matematika erakaskuntza.  
ETXEBERRIA: Fizika erakaskuntza.  
C. HARLOUCHET: Informatika erakaskuntza.

## 6. ANTROPOLOGIA.

J.-M. SATRUSTEGI: Nekazaritza eta Olagintza Jondoni Joane egunetako folklore eta ohitura zaharrak.  
G. BIDART: Zoologia berriaren bidetarik.  
J.-M. BARANDIARAN: Zein diren Euskal etniaren berezitasunak Ethnografiarako lan bideak.

## 7. PEDAGOGIA

A. LERXUNDI: Dakiteneri Euskara nola erakasi; alfabetatze problema.  
P. ALTONA: Ez dakiteneri euskara nola erakasi.  
DONOSTI-ko ERAKASLE TALDE BATEK: bi mintzairerako erakaskuntza.

## 8. GOGOETA SAILA

J. AZURMENDI: Gaurko egoera ideologikoari hitzaurre bat.  
R. GARATE: Lanaren antropologia edo Marx eta kristautasuna.  
P. XARRITON eta AGUIRRE BALZATEGI: Fedearan dinamika. Gai horien azterketak edo ikertzeak eginen dira:

- Goizetan: irakasle eman mintzaldiak.
- Arratsaldetan: talde edo multzo berezietan irakasle eta ikasle ibiliko dituzten elgar hizketak.

## DENAK EUSKARAZ.

Noiz: Aboztuaren 28-tik, irailaren 8 arte  
Nun: DONIBANE LOIZUNE-n (Lapurdi)  
«Maurice Ravel» Lizeo edo Ikastegian.  
Argitasun eta xehetasun gehiagoren ukaiteko, galdetu zuzenbide huntarar:

IKAS  
15, rue Port-Nef  
64100 BAYONNE  
Tél. 25.64.26



# A T A U N

## JOXEMIEL BARANDIARAN OMENALDIKO PROGRAMA

Ataungo Guraso Elkarteak eratu.

Ataungo herrian izanen dira omenaldi jaiak, Ekainaren 12tik 21era.

—oOo—

**HITZALDIAK** San Gregorio hauzoko Elizan, arratsaldeko 8,30etan: Ekainak 12. Anjel Lertxundi: "EUSKAL LITERATURA GAUR". Ekainak 13. Leizaola: "DUNBAREN SOBRERA". Ekainak 14. Martin Etxeberria: "EUSKAL IPUIAK". Ekainak 15. E. Goyenetxe: "FRANTZIAKO IRAULTZAN EUSKAL HERRIA".

San Martin hauzoan: **BERTSOLARIAK**, latzanipeko zelaian, Ekainak 16, gaueko 9,30etan: XALBADOR, LOPATEGI, LAZKAO-TXIKI, ENBEITA, BASARRI LAXARTE, IGARZABAL ETA AROZAMENA. HAURREN EGUNA San Gregorio hauzoan.

Ekainaren 17an, Igandea. Euskal herri osoko haurrak izanen dira. Goizeko 9etan Sakabi eta Eganazpi trikitixen kalejira. Goizeko 10etan Xistularien kalejira. Goizeko 11etan Herri meza. Goizeko 12etan Haur xistularien konzertoa.

Arratsaldeko 4,30etan Haurrentzat jai berezia.

Haur abeslariak  
dantzariak  
giñola

Tartean eskularen xepelketako sariak Joxemiel Barandiaran jaunak emango ditu.

Jai honen barruan, Joxemiel jaunari oroigarri bat emanen zaio Euskal herriko haurren izenean.

**HITZALDIAK** San Gregorio hauzoko Elizan, arratsaldeko 8,30etan: Ekainak 18. Andoni Lekuona: "BASERRIA GAUR". Ekainak 19. Altuna: "EUSKAL LEHEN GIZONA". San Martingo hauzoan **EUSKAL ABESTIEN JAIALDIA** altzanipeko zelaian.

Ekainak 20-asteazkena, gaueko 9,30etan: LUPE, BENITO LERTXUNDI, ENKO LABEGERIE, MIGEL LABEGERIE, JON ENBEITA, MIKEL LABOA, MANEX PAGOLA, XABIER LETE, LURDES IRIONDO, GORKA KNORRE, OSKARBI, JOXANTONIO ARZE (poeta), ZABALA (kitarrista), ARZE ANAIK txalaparta, eta ORIA ANAIK, LAJA, SAKABI ETA EGANAZPI trikitixak. San Martin hauzoan **JAI NAGUSIA**, Ekainak 21-Korpus eguna. "EGUN SENTIA" Xalaparta-Iturengo Zanzanzar-ek, trikitixak eta Xistulariek parten hartzen dutelarik.

Goizeko 9,30etan. Euskal herriko Xistularien kalejira.

10etan DANTZARIEN kalez-kale.

10'30etan HERRI MEZA.

12etan TXISTULARIEN KONZERTOA altzanipeko zelaian.

Arratsaldeko 5,30etan altzanipeko zelaian:

DANTZARIEN SAIOA:

Donostiako ARGIA	Estellako LARRAIZA
Luzaidiko (Valkarios) BOLANTAK	Otxagabiako MUSKILDA
Gasteizko GASTEIZ	Durangoko YURRETA

eta Bilbaoko BIZI NAIZ.

Ondorenean, Joxemiel Barandiarani oroigarri bat emanen zaio Euskal Herriaren izenean.

Oria anaika, Egurrola-Epelde Trikitixalariak eta Xistulariak eratu-tako erromeriarekin emanen zaio bukaera.

—oOo—

San Gregorio hauzoko Eskoletako gelan zabalik egonen da, Ekainaren 12tik 17ra, haurrak egindako eskularen erakusketa.

San Martin hauzoko, altzanipeko etxe azpian zabalik egonen da, omenaldiko egun guzietan:

—Euskal arte eta Euskal Herriko arkitektoen Gipuzkoako kultura ordezkariak eratu: "ARKITEKTURA ERAKUSKETA".

Diapositiben bitartez, hemengo arkitektura buruzko arazorik garrantzitsuenak erakutsiko dira.

—Euskal liburu eta diskoen azoka.

Ataungo Guraso elkarteak zuzenduta eta Kaja Laboral Popular-en babesean JOXE MIGEL BARANDIARAN izenarekin, "Euskal Historiaren azterketa edo inestigazio lanen, saria sortzen da.

Omenaldi honen fruitu iraunkor bat izan dadin nahi dugu.

Sariaren xehetasunak laster azalduko dira.



## EUSKALTZAINDIA- REN BATZARREA

Euskaltzaindiak maiatzaren 25ean, arratsaldean, hileren azken ostiralean, hilero Batzarre arrunta egin zuen. Gipuzkoako Diputazio Jauregian.

Euskaltzain laguntzaile eta ohorezkoak hautatzeko asmoz, goizean euskaltzain osok barren Batzarre berezia egin zuten.

Batzarre arruntean ukitu ziren punturik inportanteak hauk dira:

Donostiako "GOIZALDI" Herri Dantza Taldearen zilar ezteiak direla eta literatur konkurtsorako nahiko lituzketen epai mahaikoak izentatu ziren.

Goizean barren Batzarre berezian hartu ziren erabakien berri eman zen. Bederratz euskaltzain berri hautatu ziren. Euskaltzain laguntzaile gisa: Gregoire Eppherre, Mikel Zarate, Jon Bilbao, Manuel Olaizola "Uztapide", Jose Migel Zumalabe eta Martin Ugalde jaunak; laguntzaile ohorezko gisa orain arte laguntzaile izan direnok: Antonio Tovar, Karl Bouda eta Norbert Tauer jaunak.

Josu Oregi euskaltzain laguntzaileak Leizarragak zerabilan aditzaz hitzegin zuen; Gabriel Aresti euskaltzain laguntzaileak erantzun zion.

Jean Haritschelhar euskaltzain oso eta Lehendakari ordezkoa jaun Bernard Etxeparekoak idatzitako "Kontrapas" poemaren eite eta jenero literarioaz mintzatu zen. Honek esandakoez batek eta bestek zer esanik frango izan zuten.

Euskaltzaindiaren hurrengo Batzarre arrunta —eta ageriko— ekainaren 21ean egingo da. Arrasateko udaletxean. Hori erabaki zen.

Euskal irakasle tituluak ateratzeko azterketak egun hautan egingo dira: Arrasate uztailaren 7an, arratsaldeko 7etan, eta Donibane Lohizunen irailaren 8an, arratsaldeko 3etan.

"Soin" hitzaz idatzi bat

# BEASAIN

JAKINTZA ASTERAKO EGITARUAU  
HERRIKO UDALETXEAREN BAITAN

Maiatzak 30 - Asteazkena

Ilunabarreko 10,30 etan, Usurbe aretoan Euskal musika eta dantza jaialdia «ENBOR», «GARA» eta «GOIERRI» dantza taldeak egiña.

Maiatzak 31 - Osteguna

Arratsaldeko 4,30 etan «San Martin de Loinaz» ikastetxeke pelota lekuan: Haur-jolasak. Pelota partidu, bolari txapelketa, sokatira eta abar. Atsedean batean Zarauzko, «Haur Kantak» taldeak egingo du bere saioa.

Ekainak 1 - Ostirala

8-retan. San Martin de Loinaz ikastetxeke aretoan Euskal Dantza-taz Kondairaren azalpen eta esan naiaz mahi-inguruko.

Ekainak 5 - Asteartea

Goizeko 10-etan: SOKATIRA LEHIAKETA esku artuko duten taldeen izenpetze eta pixaketa. Berau, beheko enpantzako baskulan egingo da. Taldea Beasainen bizi dena behar du izan, 8 lagunez osatua eta gutxiarik 600 kiloko pixua duena.

10,30 etan: HAURREN AURRESKUA Martin Deunaren enparantzan. Ondoren eta leku berean, GAZTEEN AURRESKUA. Aspaldi galdu genduen ohitura zahar baten berpiztea.

12,30 etan. SOKATIRA LEHIAKETA, Martin Deunaren enparantzan. Sariak: Irabazleei 2000 pezeta, bigarrenei 1000 pezeta eta beste guztiak 500 bana pezeta. Atsedenean LAZKAO-TXIKI eta AGIRRE-ren bertso gozok entzungo ditugu.

Arratsaldeko 5-tan: Loinazko futbol zelaian AIERBE eta IRUNTXIBERRI-k beren indarrak neurtuko dituzte, egurra ebaki eta ondorenean korrika egingo dute. Ondorenean ENDANETA-k arrijasotzen saio bat egingo du, jasoko ditun arrien artean 225 kiloko arria altxatuko du. Jaialdi honen aurkezleak hazkaro-txiki eta Agirre izango dira. BANCO GIPUZCOANOK babestuta dago.

7-etatik 9,30-etara, eta 11-etatik 2-etara: Dantza saioak Martin Deunaren enparantzan, Iñaki Arriaran-en taldeak alituta.

7,30-etatik 10-etara: Euskal Liburu eta Disken azoka «Sociedad deportiva Beasain» edo Casino deritzan aretoan.

Ekainak 6 - Asteazkena

7,30-etatik 10-etara: Euskal Liburu eta Disken azoka «Sociedad deportiva Beasain» edo Casino deritzan aretoan.

8-retan: San Martin de Loinaz ikastetxeke aretoan Klaudio Aranburu-k SIKOLOGIA-gaz itzaldi bat eskeñiko du.

Ekainak 7 - Osteguna

7,30-etatik 10-etara: Euskal Liburu eta Disken azoka «Sociedad deportiva Beasain» edo Casino deritzan aretoan.

8,30-etan: San Martin de Loinaz ikastetxeke aretoan, Donostiako «XARIBARI» taldeak «BATZAR NAGUSIA» antzerkia eskeñiko dute.

Ekainak 8 - Ostirala

7,30-etatik 10-etara: Euskal Liburu eta Disken azoka «Sociedad deportiva Beasain» edo Casino deritzan aretoan.

8-etan: Itzaldi jator bat, San Martin de Loinaz ikastetxeke aretoan Hitzlari: Eusebio Osa. Gaia KULTURA eta GIZARTEA.

Ekainak 9 - Larunbata

7,30-etatik 10-etara: Euskal Liburu eta Disken azoka toki berean. 10,30-etan: Usurbe zinean, Ondarru-ko KRESALA taldeak «MARINELAK» euskal zarzuela jator bat eskeñiko dute.

Musika: Jose M.<sup>a</sup> Altuna-rena.  
Idatzle: Agustin Zubikarai-rena.

Ekainak 10 - Igandea

11,30-etan: 500 dantzari eta 160 txistulari ongi etorria Erauskin-go enparantzan. Txistularien eta dantzarien erakusketa hau DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA MUNIZIPALAK babestua dago.

12,30-etan: Dantza talde eta txistulari guztien ibildala asiko da lartza errotoko zubi ondoan. Herriaren gibelera doazan artean dantza talde bakoitzak bere errialdeko dantza jator bat egingo du.

2,30-etan: Dantzariak Herriko Elkarteetara joango dira bazkaltzera.

4,30-etatik 5,30-etara: Arratsaldeko dantza saioen asera. Lehenik Dantza taldeek herriko auzotara banaturik jardungo dute.

5,30-etan: Dantza talde guztien jarduna «Loinazko futbol zelaian». DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA MUNIZIPALAK BABESTUA (sarrera hutsen izango da) Jardungo duten taldeak: Beasain, Ordizi, eta Lazkao GOIERRI, Tudela-ko UDALETXE taldea, Biarritz-ko OLDARRA, Gasteizko LANTZALE, Galdakanako ANDRAMARI, Bilboko DINDIRRI, Oñatiko Lagun Onak Baionako ORAI-BAT, Zumarragako LURRA, ARIZKUNGO taldea, Estellako IZARRA taldea...

Azkenean danak batera dantzari eta herriak ariñ arin bat dantza-tuko dute.

Jaialdi honen barruan GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA PROBINTZIALAREN babesean eratu-tako «USURBE» Nobela laburren lehen sarietako sarituen berri emango da, baita ere izperringian ondorengo egunetan.

Irabazten dun Nobela. LUR liburutegiak agertuko du. Ondoren, gaueko 10-ak arte, KALEJIRA eta ERROMERIA kalez-kale. Hometan, denok esku artu behar dugu, herri, dantzari, txistulari, soinu-jole, trikitixa, eta abar...

Esan behar da baita ere, lehen aipatu diren Dantza-taldeak baino gehiago izan litezkeela behar bada. Egitaraua aurrez prestatu beharrik bultzatugaitu izen hauek bakarrik agertzera, baina beste zenbait talderekin ere harremanetan gaudelarik, horiek baino gehiago izango dira uste dugu.

Gaueko 10-tan: Erromeriaren amaia eta berarekin Beasaingo JAKINTZA ASTEARENA.

irakurri zuen Anbrozio Zatarain euskaltzain laguntzaileak, eta Axularrek eta beste hitz hau zein zentzutan darabilaten esan zuen.

Lapurdi, Zubero, Nafarroa Behereko hauzapez eta alkatteen, Euskaltzaindiaren eta Bortaleko Unibertsitatearen babesean, eta Frantziako Heziketa nazionalako Ministe-

ritzaren baimenaz, Donibane Lohizuneko «Maurice Ravel» Lizeoan Udako Euskal Unibertsitatea nola eratu-tako aditzera eman zuen Haritschelhar jaunak. Udako Unibertsitate hau abuztuaren 28an hasi eta irailaren 8an bukatuko da.

Euskaltzaindiaren Prentsa Bulegoaren agiria.

## Ez Merkenak

### Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira ganadu on, indartsuak, Eta nora jo jakin bear du baserritar burutsuak, Berebiziko aragi pillak; gañera esne putzuak, Oiek guziak berekin ditu Fanderia'ko pentsuak.

# FANDERIA

ERRENTERI



# ELIZAREN BERRI

DONOSTIAKO III APAIZ BATZAR  
NAGUSIA MARTXAN

Errenka bada ere. Errenka alegia, maiatzaren 21-22an Loiolan egin duen batzarrean, batzarkideen artean agertu bait da uste hau, hots jendeak uste gutxi duela aipaturiko Apaiz Batzordearekiko.

Dena den, martxan da nola-hala.

Bost puntu zituen aztergai azken batzarrerako: 1) "Sekularra Elizan" Donostiako gotzai-idazkia aztertzea; 2) Laikoen eskuhartzea Eliz egituretan; 3) Laikoen Kontsejua antolatzea; 4) Fede heziketa; 5) Apostolotar mugimenduak.

Itxura denez, ordea, hor aipaturiko gaien bidea hesteko edo nagi erazteko interesaturik zegoenik baten batzarrean bertan; izan ere, ia egun terdi (bi egunetarik egun terdi bada zerbait!) batzaz barruko araudiaz mintzatzen eman ziren. Lege arazoetan bada jende iaierik, nonbait. Bestalde, aipatu gotzaien dokumentua irakurri ere gabe joan zen zenbait jende. Eta jakina, punturen bat edo beste ukitu zen soil soilik.

Argi asko nabari zen, jendea ez zegoela, urrundik ere, gerturik laikoen arazoari bizkor heltzeko. Nahi ere ez zenbaitek horrelako katramilarik. Zenbaiti ez bait zaito eskapatzen laikoak Eliz egituretan sartzeak dakazkikeen ondorioak. Egokiagotzat ematen da ghetto giroko Eliza, konfliktiboa baino. Halatan, aipaturiko Donostiako gotzaien dokumentuan ageri den frasa, talde txiki zuzendurikoa, irekitasuna eta katolikotasuna eskatuaz, direlako talde txiki horiei baino gehiago, ghetto giroko klerikal talde hetsiei dagokiela aegri da. Zeren katolikotasuna, irekitasuna, ez bait du egiten gizatalde handiak, egunoroko errealitateari ahalik irekien izateak baizik. Eta giza errealitatea, bistan dago, urrunago da "Costa del sol"eko hondartzak barefik, Kantauri itsas ertzeko ur harro eta asaldatutik baino.

Dena den, Apaiz Batzorde Nagusiaren erabaki eta asmoak eraginkorrago bihurtzekotan, idazkaritza sortu da Batzordearen baitan. Honen egitekoa, oraingoz, bailaraz bailara, diozesia guztian, laikoak Eliz egituretan sartzearen arazoak apaizak kontzientziazteko bideak urratzea izanen da.

Horri buruz, opa izatekoa da, eginpide hori jator betetzeko eta jendearen aurrean prestutasun apur batez agertzeko, kontzientziazteko lan horrek, laikoak Eliz egituretan sartzearen ondorioak azaltzea ere ekarriko duela. Eta bistan dago, ondorio horietako bat hau izango dela: laikoak ez direla konformatu sakramentalimso giroko kristau heziketarekin, baizik askapen edo liberazio mailako konpromisozko kristau heziketa eskatuko dutela.

1975: URTE SAINDU

Gizadiaren barne berrikuntzarako izanen da Urte

Saindu hori, eta gizon-emakumeen bir-adiskidekuntzarako.

Gertuera (eta amaia ere bai gehienontzat) diozesia bakoitzean hasiko da, 1973ko Mendekoste egunez. Erromako Urte Saindua, Elizaren historian 25.a, 1974 ko Gabonetan hasiko da.

25enbat miloi erromes espero omen dituzte Erroman.

## KRISTAUA ETA GIZA LIBERAZIO BORROKA

1972ko abuztuan, Elizen Ekumeniko Kontsejuak, hots katolikoa ez beste Kristau Eliza gehienak biltzen dituen Kontsejuak erabaki hau hartu zuen: beren inbertsioak eta merkataritza Hego Afrikan egiten dituzten Sozietateei diru-boikota egitea. Izan ere, zioen, "Hego Afrikan egiten diren atzeritar inbertsioen arrazoina, zurien aginpidea indartzea bait da, eta lurralde hartako jendetza handienaren gain duten zapalketa sendotzea".

Erabaki hura ez da airean geratu. Bere ordua etorri zaio. Hona zer adierazten duen Ginebratik aipaturiko Kontsejuak. 650 Sozietateetako akzio guztiak saldu egin dituela.

Are. Aipaturiko Kontsejuak, munduan zehar, askapen mugimendu guztiei laguntza eman nahi die. Hain zuzen, mementoan, laguntza hori 25 erakundek jasotzen dute. Laguntza horretatik, parte handi bat Hego Afrikara doa (101.000 dolar); Hego Ameriketara, berriz, 10.000 dolar.

Bada horretan zer ikasirik. Oraindik orain, Zeruko Argian, Gurutz Ansolak zegien deia datorkit burura: ea, Euskal Herrian noiz hasten diren dirudunak bertako enpresak finantzatzeko, atzeritarrei indar eman orde.

## SAN MIKELGO APAIZ-BILERA

AMUNSAk ez omen du aipatu ere oraino. Ez nuen uste berri horien monopoliorik nuenik. Dena den, esan behar dut, aipatu ez badut, gauza zehatz eta segurorik ez duela harrapatu ene antenak.



Hau bai, entzun dut, orain zenbait urte aipa ez zitezkeen gauzak, aipa ahal izan direla. Eta beste hau ere, bai: euskara batuaren arazoa ez daitekeela oinarritu fedean. Esan beharrik ez zen. Baina, esan-go nuke, beste "euskara motak" egoera berdinean aurkituko direla. Eta oraindainokoa, jerarkia mailako "euskarak" ez du haintzat hartu euskara batua. Zergatik? Ala, euskara batuari atxiki gatzazkionok ez ote dugu eskubiderik alde horretatik?

AMUNSA

## ZERUKO ARGIA SALTZEN DA:

ELGOIBAR  
M. Gorostiza

SIBAR  
Angera  
Markina  
Iriondo  
Eguren  
Gisasola  
Barela  
Alday  
Aranburu  
Estanko, 11  
Isasi  
Simon  
Aman  
Uraul  
Urizar  
Stige XX



## Instituzioa eta klerikalismoa

Joseba Arregik bere azkenengo artikuluetan elizaren nahi ta ezko erazte hori historikoki nola burutu den agertzen digu. Ikuspegi historiko horen ondoren bezala, galdera hau plazaratzen du: Beharrezkoa al da eraketa konkretu guzi hau? Holakoa behar al luke nahi ta ez?

Galdera hau ez da txantxetako, egia esateko. Ez litzaiguke, hala ere, hain garrantzizko gertatuko, galdera honek soil-soilik instituzio-kerak arazoari helduko balio. Besterik gertatzen da, ordea. Galdera gehienek ohi dutenez, honek ere sakonagoak diren galdera eta arazoetan murgilarazten gaitu.

### SAKRAMENTU ETA DOGMA PROLEMA

Historikoki hedatuz eta borobilduz joan den Elizak, sinesmen-arloko egia zerranda mailara jaso du bere prozesu historikoan izanduriko zenbait pauso. Hona hemen bi adibide: Elizarekiko serbizio era bat —apaizgoa alegia— sakramentu mailako gertakizun zaigu gaur. Elizaren egungo hierarki-moldaketa dogmaren absolutotasunez hornitua dago. Eliza berez da hierarkiko. Aita Santua hutsezina da. Ni ez noa gaur afirmazio hauen egia edo gezurra, arbuizterea edo baieztara. Bere garaian helduko diegu galdera hauen. Aipatu bakarrik egin nahi nituen gaur, zera agertu nahiz edo, instituzioari buruz arin-arin mintzatzearekin ez goazela inora, alegia.

Arazo hau ez dira guri bat-batean bururatutako azkarkeriak. Oso zaharrak dira gure Elizan. Kristau-eliza ezberdinetan zatiturik gaudela ikusi besterik ez dago. Eliza katolikoaren beraren barruan ere, sarritan arazo hauek eztabaida sortarazi dute. Ez daukagu antzinako kondairaren gaudan murgildu beharrik. Hor dugu gizaldi honen beraren haseran Modernista izenez ezagutzen ditugun burruka. Indarra eta zigorra medio erraz menderatu zituen orduan Pio X'nak. Galderek airean jarraitzen dute ordea. Zenbait apaiz irakasle egingo ota luke gaur Euskal Herrian Elizak garai haretan ofizialki agindutako Modernisten aurkaka zina? Duela hamar urte egiten zuten zenbaitzuek ez, ziurrenez.

### ELIZAREN BI ULERMEN MOTA

Bata: Eliza Jainkoak sorturikoa da. Eliza bere muinean giza legeetatik at dago. Gizadiaren eta gizartearen eboluzio baldintzatuetatik landa gelditzen den mundu jainkotiarra da Elizarena.

Bestea: Eliza historikoki egiaztatzen doan sinesmen-elkartea da. Jesusen deia erantzunaz, haren egiari erantzuteko, gero eta kristauago izateko etengabeko borrokan diharduena. Egiaren jabeagoa ez baina, egiaren bilakaera du bere oinarri nagusia. Egia teoria maila hutsekoa ez bai ditek. Praktikoki berriz kristautu behararen arkitzen gera beti. Kristorekiko sinesmen batasunean, hortantxe ahalegintzen den elkartea da Eliza.

Edezin bereizketa bezala, nolabaitekoa da hau ere. Hain garbiak eta bereziak ez dira gertatzen egiaz. Joera bezala gertatzen direla aitortu behar ordea. Eten hori nahi eta ezkoa denik ere ez dut besterik gabe esan nahi.

### ELIZA BARRUTIK KRITIKATU

Eliza historikoki ulertzeak gure ohiturazko eliz ulermenari zenbait arazo dakarkiolarik ere, badu bere alderdi onik.

Gaur ez da gehiago reformazio garaiko eten hura bezalakorik posible. Zisma zurrumurrua maiz zabaldu da azken denboretan: Holandako eliza dela, ez dakit nungo apaizak direla, e.a. Baina ez da holakorik gertatu. Lutheren garaian ere Eliza katolikoak bere historikotasunaren erlatibotasuna guziz ahaztua eduki ez balu, ez zatekeen beharbada halakorik gertatuko.

Elizaren azterketa historiko ikuspegi egiten duanari, ez zaio Eliza berri bat sortzearen ideia burutik pasa ere eginen. Eliza katoliko ofizialak Jesusen Egia guzia behin betiko eskuratzen duenik pentsatuko ere ez duen bezala. Eliza aldatzearekin ere ez da harrutuko. Ez ditu gehiago, esenplu bat emateagatik, protestanteen teologia azterketak bi hitz hutsetan arbuia eka kakazuko. Ez da Egungo Elizaren eraketa eta bizierarekin lasai geldituko. Eliza instituzioa osoki arbuizteza ere kristautasun jator batetan oso bidezkoa ez ote den sumatuko du.

### ELIZA ERATUAREN ARRIKUA

Gu ez goaz gure azterketan Elizaren egungo instituzioa bere osotasunean aztertzea. Ez da ere instituzio hori historikoki nola sortu den —Josebak aurrekoa egin zuena baino zehazkiago— eskeintzea. Liburu osoak behar dira horretarako. Hori egiten duen libururik bada gainera. Eliza instituzioak egun dituen zenbait arisku nagusi agertu nahi ginituzke.

### ELIZA KLERIKALA

Elizaren instituzioa berez, sinesmen elkarteari historian zehar gertatu zaizkion jakineko egoera batzuri egokitu nahiaren fruitu da.

Historikoki gertaturiko etengabeko egokitze horretan —beharrezko ahalegina— arrisku nagusi batetan erori da ordea: klerikalismoan (guziz erori den ala ez, utz dezagun, arren. Karlstada garaiko galdera da hori. Eta Karlstada garaia joan zitzaion gure herriari).

Klerikalismoa erro erroraino sartua dugun gaitza da, eta gauditu ere, apenas bi urtetan gaudituko dugun.

Klerikalismoaren sustraia beldurra da, enararik bizkorrena ere hegoak moztuta utziko lukean beldurra. Klerikalismoa, Elizak bere gaitetasuna, bere bizitasuna galdu duenaren seinale garbia da. Eliza klerikala bere buruari begira dago. Bere burua nola segur sentituko.

Klerikalismoak zentralismora garamatza, indarraren beharra izatera, zigorra ohizko bihurtzea. Klerikalismoak liturgismo falto batera eraman gaitu. Goitik bera eraturikoa, eguneroko bizitzarekin zer-ikusirik gabeko batera, guzientzat berdina, latinez.

Klerikalismoak, sinesmena eguneroko bizitzatik urrutiratu digu. Bide batez berriz, eguneroko bizitzako burrukan lan aski badutenak urrutiratu egin ditu Elizatik: ikus Europako langileria.

Klerikalismoa, gure Elizatasunaren, gure sinesmenaren aldiririk garrantzizkoena ahantzi izatean datza.

Elizaren egitekoa, Itun Berrian agertzen danez —eta honoko hau Thüsing exegetak dio— munduan Jesusen asmoaren zerbitzuko egotea da. Eliza Jesusen Eliza, bere bizitzan heren intenzio eta asmo nagusia egiaztatzen dituen neurrian da. Bestelako arazoiek ez dute ezertarako balio. Arkitu ere ez daitezke inun arkitu. Elizaren egiteko hau kanpora begira dago nagusiki. Munduari begira, gizarteari begira, gizonari begira.

Barrura begira ere, sinesmen elkartea berari begira ere alegia, badu Elizak egiteko bat. Jesusen biziera, asmo eta erakutsien muina zintzo gordetzea. Sinesmenaren egia gordetzea. Horretarako ere zenbait kargu beharrezko ditu noski.

Klerikalismoa bigarren honekin bakarrik gelditza da. Bigarrenago hau ordea guziz alferrikoa da lehenean gogor jarrai ezean. Mundu bitxi aparteko bat sortu besterik ez dugu egiten. Kasta berezi baten eskuetan dagoen «herri» bitxi bat.

Klerikalismoa aeta Elizak instituzio bat, hierarkia bat izatea ez ditut inola ere berdintzen. Geldi bedi hori garbi. Baina klerikalismo hori nagusiki, hierarkitasuna ulertzeko eta egiaztatzeako erak greganatu dizkigula ere, egia dela uste det.

Egun klerikalismoaren kontra etengabe mintzatzen gera. Baina aurrrera pausorik egin nahi badegu, barrena jo beharra dago.

JEXUX MARI MUJICA



# NEKAZARITZA AN ETA EMEN

Jose Alkiza

## Donostiako arakiñak mataderia

### egiten ari dira

Gipuzkoako baserritarrek beren zekorrek saldu ezin dabilen ontan, arakiñen kontuak basoan suak bezala korritzen du. Gaur emen eta bihar an, zurrumuru berbera aditzen nuen: Donostiako arakiñen gremioa, mataderia berri bat egiten ari omen da. Zenbait baserritarrek bildurrez dio ori, gaur arakiñak nahi bezala zekorak saldu beharrean gertatzen bada; bihar, are-ta lotuago aien mende geratuko dan bildurrez. Beste zenbaitek berriz, itxaropenez; mataderia berri bat eginda, arakiñek zekor gehiago litzuten badituzte, baserritarrok errazago enpleatuko ditugun ustetan.

Donostiako arakiñen gremioko buru, Alvaro Elizondo dala jakin genuenean, berari galdezka joan gintaizkion; baita ark erantzun ere, guk galdetu ala eta gehiago. Planoak, obrak eta fabrika, denak erakutsi zizkigun, Martuteneko baztar batera eramanda.

Ona emen zer ikasi dugun.

—Donostiako arakiñak mataderia egiten ari omen zerate?

—Bai alaxe da. Martuteneko baztar ontatxe eginahalean ari gera, gaurko aurrerapenez ornitutako mataderia bikain bat altxa nahirik.

—Noiztik asi zifiaten?

—Donostiako arakiñen gremioak urte asko ditu; baiña orain dala sei urte, gremiokoak S.A. elkarte bat egin genuen eta emen Martutenen, segoak urteko eta larruak kuratzeko fabrika bat altxa.

Kaur fabrika ori martxan dago.

—Zer egiten duzue or?

—Animalien ondakin guztiak aprobetxatzen dira. Segoa bere artan ez du ezer balio; baiña urtu eta garbituta ez Jaukagu saldu ezinik.

Larruak, ipuzkoako arakin guztienak biltzen ditugu eta Nafarroako batzuenak ere bai. Gero, emen, aldiari aldiari subasta eginen saltzen dira.

Azkazalak, adarrak, esteak, ezurak... dana, azkenik belarrien barruko illeak ere aprobetxatzen dirata.

—Ori egiña dago eta orain?

—Bai, ori martxan jarri dugunean, mataderiari ekin diogu. Lurra lehendik daukagu eresia, dena batera. Orain mataderia egiten ari gera. Iru parte ditu: aragia eukitzeko kamarak, ganaduak iltzeko tokia, eta ganaduak bizirik eukitzeko lekua.

—Ganaduak bizirik euki behar al dituzue emen?

—Iru egunetan il ditzaken ainbat bururentzat bizirik eukitzeko lekua behar duela mataderi batek, agintzen du legeak. Gaiñera ondo dator lanerako.

—Zer daukazue egiña?

—Iruetatik parte bat egiña dago: kamara frigorifikoak. Egiña eta martxan. Lanean ari dira, kamaratan aragia badaukagu. Gaur oraindik il, erriko mataderian litzuten ditugu ganaduak; baiña gero aragiak emen jasotzen ditugu.

—Zenbat denboran euki diteke frigorifikoan aragia?

—Aragi freskoa 20-25 egun. Gehiago eukitze ezker konjelatu egin behar da. Izoztuta 6 ilabete euki daiteke.

—Ortaz aragia ugari dagoenean ilda kamaratan jaso dezakezue?

—Ez da ain erraz. Emengo baserrietan, urtean bi bolara izaten dira, zekorrek enpleatu ezinik ibiltzen direnak. Neguaren bukaeran, eta udazkenean, belarrak ahiu xamartzen zaizkionean baserritarri. Orduan, ikullua arindu nahi dute denak eta zekorrek atera; baiña guk, ezin dugu aragi ori dena, une berean tablan saldu.

—Konjelatuta eukitzeko era badaukazue.

—Bai, baiña orduan prezioa asko jeisten da; konjelatua merkeago baita.

—Zer egiten duzue?

—Egiten duguna da, ahal dan guztia emen bertako ganadua erosi, kanpotik gutxiago ekarri. % 70 emen bertako aragia artzen dugu bolara oietan.

—Zergatik ez dena emengoa?


—Beste tokietako bezeroel ere, eutsi behar diegu. Zenbait garaitan emen ez dagoelako erdia eta gehiago kanpotik ekarri beharrean gertatzen gera. Baiña ahal dala nahiego dugu emen bertakoa. Gipuzkoako zekorra, kanpokoa baiña erraldeko bi duro gehiago pagatzen dugu.

—Zenbat buru ilko dira mataderi berri ontan?

—Urtean 15.000.000 kilo aragi: behi, zekor, ardi, zeri eta abar.

Gaur emen bakarrik saltzen dugu, baiña au martxan jartzean, noranahi salduko dugu. Beste mataderietan ildako aragia, gaur bertan Donostian saltzen dan bezalaxe.

—Zenbat arakin zerate elkartean?



Kalabaza galantak!

Urtean amabost milloie kilo aragi irtengo dira Donostiako mataderitik

—Lehen gremioan 130en bat giñen; oraingo elkarte ontan bagera 200, eta gero eta gehiago izango gerala nik uste.

Gipuzkoako guztiko arakiñentzat, nahi duen guztia-erentzat, atek zabalik daude. Arakiñak gasta dezake, gremioak jarrita daukan biltzailleak erosten dutena, edota berak zekorra erosi. Gero emen il eta bere tablara eraman.

—Zuek mataderi au egiteak, zer ondorio ekarriko dizkio baserritarri?

—Gu ez gera baserritarren kontrario, aldeko baizik. Baserritarrek zekorrek azitzen ez baditu, guk ez daukagu zer egiñik, aragia behar dugu.

Mataderi au denentzat irekia dago.

—Baserritarrentzat ere bai?

—Bai orixe, eta au esan behar duzu: Baserritar talde batek nahi balu, beren zekor mordo bat gure materialian il, gero aragia saltzeko, emen edo kanpora, il ditzake mataderi ontan, kamaratan eukiko dizkiogu eta beste lan guztiak ere egingo dizkiogu.

—Adizu, pentzatzekoa litzake.

—Bai, bai, sozio ere berdin artuko ditugu, nahi duten baserritarrek.

—Esker milla, Elizondo. Ez dut beste galderarik.

—Ez orregatik. Ea inauguratzen dugun emendik urtebetara eta orduan emango dizkizut berri gehiago.

—Eskerrik asko, berriz ere. Agur eta urrena arte.

### ESNEAREN SALNEURRIA DALATA

Esnearen salneurriak, oraindik ere, itzegin erazten du. Ona emen, iparrean eta egoan, Asturiasen eta Granadan esandakoak.

Oviedon. Asturiasko onek gogor erasotzen digu, esnearen prezioa altxa behar litzakeela esanez, baserritarrei burua berotzen gabiltzanori, eta bere arrazoibidea auxe da:

Esnea prezioz igotzen bada, jendeak gutxiago erosten du. Au esne soillarekin baiña ere garbiago azaltzen da esnez egindako produktotan, mantekilla, gazta, yogur eta abarretan. Orduan esnea sobratu egiten zaigu, saldu ezinik gelditu; eta azkenean lehen baiña okerrago. Beraz ezin diteke esnea garestitu eroslea aberatsago ez bada, au da, langileari jorrala jasotzen ez bazaio.

Baserritarrok, beraz, esnea garestiagotzen ez baiña merkeago produzitzen saiatu behar duzue; gutxi kostata esnea sortu, eta orduan, oraingo prezioetan ere, kontua izango du.

Ala dio Oviedoko esne zentralen sindikatuko buru dan Ramiro Mon Jaunak. Granadan. Andaluziako esnebehidunak bildu dira, ganaduzaleari pagatu behar zaion esnearen salneurriaz itzegiteko.

Badakizue Espainia guztian esneak ez daukala prezio bera. Zonak daude. Andaluzia bosgarren zonatan sartzen da eta an, 9 pezta da ezarria daukaten esnearen salneurria.

An ere ez dira ba konforme. Esetnara jarrita dauden grnajak kitoan edo galeran ari omen dira. C.O.S.A.ko teknikoeak egin duten azterketan, Granadako behitegirik abillanari ere 9'10 pta. kostatzen zaio litro esnea.

Billeraren ondorio bezala gobernuari eskabide auek egitea erabaki zuten:

—Esne zonak orain arte bezala jarrai dezatela eta ez ditezela ken.

—Espainiako iparraldeko zenbait gauduzalek esan eta egin dituzten gauzak iguingarri zaizkiela, Andaluziako esnebehidunen kontra erdiz erdi doazelako.

—Néguko prezioak iraun dezala urte guzian.

—Esneak gutxienez behar duen grasari buruz, ezarri berri diran neurriak alda ditezela, lurralde bakoitzean behiak berez ematen duten esnea kontuan eukita.

—Azkenik, pentsuaren garestitzeak ematen dien ondoeza agertzen dutela, neurri berean esnea garestitzerik ez dagoen ezkerro.

Ona mutur bateko eta besteko kontuak aipa.

### MANTEKILLA

Europako merkatu batua osatzen duten nazioak urteak daramazkiete, sobratzen zaion mantekilla nora saldu asmatu ezinik; baiña oraingoan, dirudienaz, ondar guztiak garbitzeko modua egin dute: 200.000 tonelada U.R.S.S.era saldu dituzte. Prezioa, 2000 pezta kintalmetrikoa. Orregatik salmenta au FEOGA: ri 22.000 milloie kostatuko zaio. Esan nahi du, Rusiak pagatzen duena kostapreziora ere iristen ez dan ezkerro, gainerakoa merkatu batuko nazio guztien artean osatzen dutela, mantekilla ori pillatuta zeukaten fabrikeri ordaintzeko.

URSS.en jendea mehe bizi ote da ba?

### 100 URTE

Aurten bete dira 100 urte, apirillaren 18an, Munich-en Justus von Liebig il zala. Aleman au kimikoa zen eta beste asmazio batzuk egin bazituen ere, guretzat aundiena "abonoak" sumatu zituela. Bera izan zan landareak ongarrantzeko abono artifizialak erabiltzen lehenengo asi zana.

Gaur 100 urteren buruan, erabiltzen ditugun lurrik gehienetan abonoak botatzen ditugu: artoari, arbiari, belarrari, eta baratzen zer esanik ez.

Egun auetan su eta gar ari da jendea belarzuoloak betetzen, eta zenbat baita ontzen ere; Maiatzaren azkeneko nol ekarri olako korrea abonorik gabe? Eskerrak, Liebig.

### GARIAREN SEGUROA

Galsoro batean, urte garai au ezkerro, arriak eta suak pikardi izugarriak egin ditzakete, eta urte guzian gariuztaren menturan dagoen nekazaria lur jota utzi. Castillako soro zelaietan galsoro zabal askoak ikusten dira.

Arriskua aundia izanik, seguro baten billa zebiltzen nekazariak, eta iritxi dute. 20.000 kilo entregatzen dituenari denak babesten dizkio seguroak. 20-100 milla kilo dituenari, aurreneko 20ak, eta gainerakoen erdia; 100dik gora dituenari % 30.

Nekazari txikia babestuagoa gelditzen da, baita behar ere. Maiatzaren 15erako deklaratu behar zuen nekazari bakoitzak, ereinda daukan lurren arabera, zenbat gari izango duen entregatzeko eta seguroan sartzeko.

Beste zenbait jenerotan ere ez litzaioke gaizki etorriko nekazari seguroaren babesa, arriskuak nonahi baitira aundiak.

### KALABAZA GALANTAK

Igazko urte ortan Valenciako baratzen atera dituzte kalabaza galantak.

Cullera-ko bati ondo berean 5kalabaza sortu zitzaizkion eta denen arte 150 kilotik gora pixatu.

Aundienak Catarrojan izan dituzte: batek 71 kilo pixatu ditu, eta beste baat 78 ra iritxi da, marka guztiak autsiz.

Chililla-ko aitona batek 65 kiloko bat izan zuen eta bere etxeko atarian jarri, auzoak ikus zezaten. Ez zuela saldu behar zion, ez ta, puskatu ere, antxe euki begien gozagarri; orrelakoak bizitza guztian behin ikusten omen dirata.

Il ontan zenbait ikasle, eta beren gurasoak, larri ibilliko dira beren kalabazekin. Baita, erreze asko atera ere, nahi baiña ugariago.

### FAISANAK

Bizkaiko granja batean, Sondikan, zientoka faisana, batzuk kanpoan eta gehienak beren karioletan, betaurrekoak jantzita dabilta.

Ez, noski, bista laburra daukatelako, nagusiak dionez, elkarrekin burrunkan ibili ez ditezen baizik.

### NOR-GEHIAGOKA

Euskaldunen artean ainbat apustu ez dakit beste inon jokutzen ote dan, baiña beste tokitan nor-gehiagoka xelebreak antolatzen dituzte. Inglaterrako iparraldean bildotsak jarri zituzten saltoka, nok esi aundiagoa pasa, zeinek altura gehiago salta.

Lehiaketa au, autopista bat egiten ari ziren injenieroeak antolatuta zuten; autobide ori, ardi asko larrean dabilen belardiak zehar egin behar baitzuten. Orrela ikasi zuten bide bazterrean zenbaterainoko alantre-esia jarri bildotsik hidera irten ez zedin.